IBERO'TAR EBANGELISTA

# EUSKO AMI

EDITORIAL VASCA
>EKIN<
BUENOS AIRES



AITA IBERO'REN IRUDI ATSEGIN ETA GARBALA

IBERO'TAR EBANGELISTA
Buruñurduna'ren

# "EUSKO AMI"

Editorial Vasca EKIN S.R.L.
Perú 175 - Buenos Aires

EKIN argitaldaria
Peru 175 - Buenos Aires'en

QUEDA HECHO EL DEPÓSITO QUE MARCA LA LEY

IMPRESO EN LA ARGENTINA — PRINTED IN ARGENTINE

# ESKEINTZA

Ameriketa'rako ametsa, eta Ameriketa'n irakasletarakoa, bizi oroko ametsa ukan zula, maiztxo aitor oi zun Ibero'tar Aita Ebangelista'k.

Amets ori lor bagezko etsia eta espa, berekin eraman zitun noski ludi ontatik.

Guk, ordea, Ameriketarrok, espa ori kendu egin nai genioke, bein-betiko eta etsi ori arin erabat, Ameriketa'ko lurraldetan, ber-bere oñaz sar dala ager-araziz ez eze, irakaslerik kutunen eta mamikoen gerta dala aitortuz; eta, orixe bai, berak ere iñoiz amets egin etzezaken eran aitortuz ala ere, ots, emendixetik aren irakaskizunak, ain maite zitzaion euskeran eskumendatuz. Auxe bai etzizula naski ayeru gure abade martzal eta garbalak.

Aren gureganako onginaiari esker-sariz, guk ere, egokienik zeritzaigun eran, ona erantzun, aren "EUSKO AMI" euskeraz, berez zegokion mintzairaz, eskeiñiz.

Peit zitzaiola zeritzaiguna eratxiki; orainaldiari alperrik letozkiokenak labur, sayets eta laga; Aita Ibero'ren mamiko lagun batek antolatu ta aren bizitzako zenbait xeetasun eta berriz itzaurrekotu; Argentina'n Euzkadi txiki bat sor zaigula yakinki, Garziarena-Agerre Yaunak arildu ta bertoko euzko-leñuko semeen asmo, iritzi eta aburuz agollatu; Intxauspe yaunaren laguntzaz eta "EKIN" en zuzendariaren asmo, ayo, bulka ta arnasaz eratua, ona ainbat euskaldunen biotzak irazeki-araz ditun Aita Ibero'ren lana, Ameriketa'tik euskeraz.

Aren erderazkoak aiña on ba'legike, onek, euskerazko onek ere, sari oberik irrika al genezake?

Aita Ibero'ren baratz arrigarrian ez giñan lankide sarturen zenbat maite zun ark Euskera ez ba'geneki eta bere lana Euskeraz emana ikusteak biziki poztuko dulazkoak ausardi ez

ba'lemaiguke, an goitik gure alegin, ataza eta azantzak onartuken dituła uste ezik, eta ura bezelaxe, gure gurasoen aberritik urrundu bearrak, argentinatar-semeok erbestealdiak arekin anaikidetu gaitula sinist ez ba'genun.

Goitik arnas be-maigu ark, Yainkoaren eta Aberriaren onerako.

ARABAGU.



## "EUSKO AMI" REN EGILLEAREN ZENBAIT BERRI ITZAURREZ

Goikoetxea'tar Erramun, lekaiditzako goitizenaz, Ibero'tar Ebangelista Aba, buruñurduna, Naparroa'ko Ibero errixkan yayoa dugu.

Santander'en, Montehano'ko errian (Españi'n) Prantziskotar buruñurdunak duten Ikastetxe txikian 12 urtedun, sartu zan.

Yauparitzarako aurretikako bearrezko ikaskizunak, antxen egin zitun, aurrerapen nabarienaz eta ekitez eta buruz, oroen gain arrola ta gaillurtzen zalarik; lekai-aldia berriz, 1888'garren, urtean Ondarrabi'ko lekaidetxean: abade ikaskizun nagusienak, Lekaroz'ko Ikastetxean, eta 1897 garren urtean Mezaberri.

Etxe ortantxe irakats zitun irakasketaldiak kanoregarri ta garrantzitsuenak eiki zenbakizti gaietzaz gañera, orori ain pozgarri eta atsegingarri zitzaizkien elerti-yayak, ikuskizun eder oiek zegitziten aurtxoen arta eta erakusketak bere gain bait-zitun.

1900 garren urtean, Iruña'ko buruñurdunen lekaidetxera izan zan eramana, Eliz Legedia, Idazti Deunak eta Itzetorriantzea irakats zitzan.

Garai artantxe egin zioten Agintariak eskabidea, Iruña'ko Yauretxe Nagusian, Aralar'ko Mikel Deunaren itzaldia egiteko.

Ikasi eta ondoren, 1902 garrengo Yorraillaren 8'an aldarrika zun, Gotzaiaren, Eliz-Yauparien, Erri-Agintarien eta entzule kopurutsuen aintzinean.

Uzkurtza eta Aberria zaindu eta gaizkatzeko, nolako eragozpen eta oztopoak dakazkiten alderdikeriak, anai arteko zatikeriak eta euskaldunak oro elkartzeko eta bat yotzeko ar zun bere itzaldiaren aldegaia.

Itzak eta itzaldia oker eta girbinka ar zioten, eriozketarako

axuka eta uyaka ari izan bait-litzan edo ta; egia errate arren, ai zi-alkitxoan yezarri bearra arki zan Aita Ebangelista, Pilatos'en auzitegian Kisto bezelatsu.

Zorionez ordea, aren itzak biotz onetan ere yalki ziran, eta bere garaian, beltzkeri eta mardail artetik aratz eta garbi agerarazteko, zaindu ta malda zuten eta erru-agiririk etzala ta urenduxea zitekela auzia bera ere, aitor zun epaile zintzo bat ere ukan zun.

Agitz aundia izan zan arentzat aintza; baita lekaidetxearentzat ere eta Uzkurtzarentzat eta Aberriarentzat berriz, iñolako garaitza.

Iruña'ko Kistar-zabalkunde Biltzarrak argitara eman zun eta eda aren itzaldia.

1903 garren urtean, orduntxe irasi-berri zan Lizarra'ko Serapindar Ikastetxeko artezkari izenda zuten Goiagintariak, asiera eman eta zuzen-ardura bere gain egotzirik.

Aren lan arrigarriaren aipua, Lizarra uriko billalde ertsietatik laxter zan gañez eta Iruña'k, Donosti'k eta Bilbao'k ere, sarri atsegiñez beterik onar zituzten, ain txukun, egoki eta ongiezi aurrekin zegitzin Eliz-yai eta Elerti-yolas eder ederrak, Yainkoaren eta Aberriaren aintzarako.

Aberri alde lan zegiketen bidali-eli batzuk ere auta zitun "Instaurare in Christo Euskeriam", egitarau ederreko goiburuz.

Euskera, ikasbearrezko zitzaien, eta baita Ikastetxera sartzean Euskerarik etzekiten aurrak, oitu ere Euskeraz mintzatzen ederki oitu bait-ziran, eta alakoxeko sapa eta arrakasta lortu ere lor zizun.

Iru urte doi-doia iraun zun Zuzendari. Ikastetxe ura Altsasu'ra alda zutenean amai zitzaion zuzendaritza eta 1906 garrengo urte ortan bertan, Lekaidetxeko buruzagitza (Zuzendaritza ez eze Lekaidabatza ere bere gain bait-zun).

Azle bikañaren aipu ta sapa edonora zabalduxe bait-zitzaion, Buenos Aires'ko Euskal-Etxe'ko Bazkide-ordezkariak, ara non doazkion gizakumeentzat eraiki-berri zuten Ikastetxe ortako Zuzendaritzaren eskeinka.

Etxe orren Aberri aldeko asmoetzaz yabe egin zaneko, pozez eta bertotik baiezkoa eman zien, lekaide zanez, Agintari-esangintzapean ala ere.

Elburu ura erdiets bearrez lerrenak eta kemenak yoarren,



aren Aberri-maitasun bizia ezkerbegiz eta gorrotoz zekusten-ak, iñundaniko murtzi, beaztopoarri eta erro txar bidera zizkioten eta urratsak oro tamalez, alperrikakoak ibil zitun.

Etsi bear ukan zun "bere bizi guztiko amets lilluragarri ori lortzetik" berak zionez, Euskal-Etxeko Artezkari izatetik alegia.

Agintzaz Lekaidetxeari estekariko lekaide onen burnizko naimena baño, gotorragoa eta setatsuagoa izan zan enura bage elkar-artutako Aberriaren aurkako izterbegien aala.

Ziteken Artezkaririk yaukalena eta gorengoena gal zun ausaz Euskal-Etxeak.

Lizarra'n, Ikastetxeko Artezkaritzakoan, Aberriarenganako asmo berri, bero eta itxarogarri aiekin ezagutu zanean, aren irakaskizunen argiaz amets-eragin zenbaitzuek, bulko, aburu ta gogai aiek borobil zitzala galde zioten eta "AMI VASCO" (euskeraz "Eusko Ami") idazpuru idazkitxoan, 1906 garren urtean, agerarazi zitun.

Geurtz, aldaketa zenbaitekin, ururik zabaldua, Olariaga'tar Nemesi, abertzale yatorrak argitarazia, "Bera Gezurra eta Gora Egia" idazkunakin Buenos Aires'en ager zan.

Izki adinbat abertzale egiñik dute naski orri txiki oiek eta bai ainbat on ere, Aberriaganako itsualdi eta alotzaldi betetean, Arekiko egin-bearrak aantzirik bizi ziran berein euskotarren artean.

Urte bat soil irain zun Aita Ebangelista'k Iruña'ko Lekaidetxean, 1907 garrengo Dagonillarañokoan.

Teruel'go Hijar'en (Españi'n) buruñurdunak duten etxera oildua, lekaide zanez, men egin bearrez arki zan.

Kaxkarkeri oien-pean abaildua, etzun luzaro yo. 1909 garrengo Irailla'ren lenengoan, antxen il zan. Goyan bego. Hijar-go illerrian eortzia izan arren, aren gorpuzkiñak zein bide eraman zezaketen, geroak erran bearko du.

Aberri alde orla yoka dun bidali onen aldarri eta oyua, ez-entzun ote zenegizke euskaldun anai maite orrek?

"ABERRIA ETA AZKATASUNA".

# I

# ABENDERRIA

1. Zer da abenderria? — Yatorri batbera; mintzaira bat; izakeraz eta ayurriz antzeko; aztura eta oitura berak; bearrenezko Legedi bakarra, baterako egintz-omenak; asmo, aburu, yas eta ario bateratsuak; eta orobateko edo berdintsuko goraberak dituzten gizaki eta erri multzoak osatzen dute Abendarria.

2. Erri-osagai oetatik, zeintsuk ditezke zin-ziñez abenderria eratzeko bearrezkoenik? — Odola, enda edo sorterroa len-lenik; mintzaira urrengo; besteak oro, osagai bi oien ondorenak, lenengoarenak batez ere, besterik ez dira.

3. Enda-batasun-ezberdintasuna, zertatik igarri ote liteke? — Aideko edo ez kideko mintzairetatik; bi aberrimintzaira ezberdiñago eta bi endaen ezberdintasuna nabarmenago. Adibidez: gaztelerak, errusitarren mintzairatik baño, txinatarrenatik, alde aundiagoa dizu eta pantzeratik baño errusitarren eletik areago.

4. Bertze endako izanik ere, iñoizka ez ote dezakete ba erabil erriak ele bakotxa? — Bai yauna; erri beroien odol edo endak naasirik, eta lorrin ondoren, atsarreko endaen araztasuna galtzean, agitzen da ori ordea; naas-arte ortako enda azkarrenak edo yakintsuenak baña, enparau izkuntzak suntsi eta berea bakartu eta gallen-arazi egin oi du. Ara nola: Españi'n naas ziran keltar, penizitar, erromatar, yudutar, arabitar, doixtar, iberotar, keltar-iberotar muzarabitar eta beste ainbat eta ainbat endaetatik, latitar edo Erromatar enda soil-soillik nausi ta gaindia da eta argatixe duzute Latera-berria españatarren elea; argatixe gañera ain antz-berdiñeko dituzute españatarrak, portugaldarrak, pantzetarrak, eta italitarrak. Izan ere, erri oek oro, abenda baten motak besterik ez bait-dira ba, latel-erri ta abendarenak, yakiña ba.

5. Osteango enda oietatik osa dan erriaren mintzairan, batu aintziŕdik zituzketen ele-aztarrenak, agian nabarmengarri ez ote gero ere? — Bai noski, eta iñola ere ezin izan bestela; ortik, atsarre-garai aietako edesti-yakintzarako ele-yakintza liteke egokien-egokienik.

6. Aipa ditugun berextasun oietzaz gañera, azpegiko eta soingañeko ostantzeko endaen elkar-berexgarririk bai ote? — Bai yauna; soin-berextasun oietxetatik, beltz bat zuritik eta laru bat sudur-apal eta makoxtarretatik, ain einera berexten dizugu guziok; pantzetar tankeraz, englandar tankeraz, doixtar tankeraz eta, abar, sarri-sarri mintzo oi gera oro, gizaki-yakintzan yakile garai diranak ager digutenez ordea, orra ba, eusko-endak lubilla guztikoetan ez omen du antzekorik. Soin axaleko alde au ordea, izkuntzaen eta barne-gogo izantzaen aldean ezin izan ain garraŕtzikor ain barnekor eta ain yakingarri.



# II

## LATERRIA

7. Zer da Laterria? — Sor edo as liteken eran ez baña, sorturik eta zuzendurik arki oi dan einean so dagiogularik orlaxe atzal dezakegu zer dan Laterria: "Erabateko agimen edo burupe baten pean bizi diran gizaki eta erri-saillak osatzen dute Laterria.

8. Abenderri eta Laterri orobat ote? — Iñola ere ez. Abenderriak bizia berezko du, sortzez datorkio; Laterria, berezko ez baña, gizaki-asmozko lana baizik ez da. Endak dirauño erria amarakor ez da; Laterriak, bakaldun, agintari eta menperatzaleen gogara eta apetara, era eta ezaba egiten dira.

Abenderriak, osagarri zaizkioken gaiak, odol ta ele estekaz lot oi ditu; Laterriak, yaurgoko eta agintaritzako agimen lakioz soil-soillik.

9. Alde ta baiten aundi au, adibide batez tipil ote zenezaidake? — Bai yauna, bai: Aitama baten anai bi, aidegorik ez duten guraso beroien menpeko seiekin erka itzatzute. Ain xuxen ere; batzutatik bestetara legoken baiten eta ezberdintasuna, uraxe ta bera daukazute Abenderri eta Laterri artean.

10. Ontara ezkero, Abenderri bat bi Laterriz edo irulez, Laterri bat berein Abenderriz osaturik al liteke? — Ezin uka. Orra or bi laterri arrunt berexi, Englanderria eta Goi-Ameriketa'ko Laterri Batuak. Oriek oro, england-sajondar abenderri edo endak ditugu. Ona len-galderaren eredu bat (1).

Errusi-Aginterria, berein enda-mota (Amabi-amalau abende-

(1) 1906 garren urtean idatzi zula egilleak ez dugu aantzi bear eta ordutik ona zenbait aldaketa gerta. Gaur "Sobiet-Laterri-Batuak" tzaz mintza bear. Irland-erria ere gaur azkatuxe dugu.

rrienak bai naski) bearrenezko Legedi baten pean; or bigarrenarena.

11. Zure irakaskintzak ontzat emanik, bere buruyabe ta eskudun izan orde, atze abenderripean arki liteken abenderri edo endaren bat ba-liteke beaz? — Baiki, baiki; orra ortxe ikusbidetzat, irlandarren Aberria, polonitarren, letonitarren, euzkotarren, laponitarren eta abar (2).

12. Eta atze oien menpe bizi diran enda edo enderri oiek, askatzeko eskubiderik ez ote dizute? — Egi aundigorik ezin, baitaz eta oldez atzeen menpe yar ez ba'dira beintzat, eskubideak oro atzerri-eskuetan eta aien alde emanik.

(2) Irland-erria abenderritzat ezin yo ertsikitara, keltar-abendako bait da. Aundika artu ta Abenderri eiki.



# III

## ABERTZALETASUNA (1)

13. Erri bakoitzak, bere buruagintaritzaren yabe, berak asma legekin, bere ciko azturakin, bere edestiko legediakin, arrotzen sudur-sartzerik gabe bear lukela dion erriketa-erabide orri nola deritzaio? — Abertzaletasuna.

14. Aipa errizaletasuna, buruentar, berekoi eta Kistar-maitasunaren buruzki litzakenik, guzurra da beaz. Ontsa diozu; abertzaletasunak, erri guzieri eman nai die eine berean buruyabetzaren eta azkatasunaren eskubidea. Indarrez ala amarroz, enda batek bestea menperatzea edo erroiztea, orrexen aurka duzu abertzaletasuna. Au zuzutsa, eta maitasarrea eta indartien aurka aularen begipea ez ba'da; beste auzi-yaunik ezin ekar Yainkoa baizik!

15. Abertzaletasunaren etsairik gogorrenak zeintsuk dira? — Iru buruenik; *Aginterrikeria,* beste erriak menpera-bearrezko eta lurraldeak ostu-bearrezko atsal ayerra, enda batek bestea zapal-bearrezko burrukan; *Atzerrikeria,* edo enda baten yatorrizko gaiak, onenak, bikañenak eta txalogarrienak ukanik ere, berezko ez diteken ayo ta yitez, iguin, eta narda eta besteengandik letorkikenik, oro, onar eta maita, ezaingarrienik, kaltegarrienik eta arbuiagarrienik izanik ere; *Ludiaberritarkeria* edo gizakienganako maitekeri utsala, endaen berextasuna ez ezik,

(1) Ezker-eskuindar indarzaleak, erabilliaren-erabilliaz, lorrindu egin digute itz onen esan-nai yatorra. Nork bere erri-maitasuna, berezko errangura au sayestu eta gizakiak sortzez bere-bere duten buruyabetasuna, Laterri indartsuen-pean uztarripeko yarri asmotan dabiltzan alderdiak ostu dute eurentzat. Berez ba abertzaletasuna, erri-maitasuna besterik ez da, erriak ditun oitura,

Yainkoaren izena ere giza-biotzetatik erauzirik eta idokirik, lertzo bateko uarretan endak oro bartala eta naspil nai lituzketen aburua.

16. *Abertzaletasuna* eta *erkizaletasuna* berdin al dira? — Ez orratio. *Erki* zeri deritzaion, egokiro errateko, berexgarririk aski tinko ta garbirik ez dan ezkero, ezin eman erkizaletasunaren erranai bete garbi ta xea. Aldiz, erri yakin zenbaitentzat agintesku.bide zabala lortzea dizu xede; ogasunetan edo aien artuemanetarakoaz edo, aski zaie beste eretiaz; berarizko lege zar batzuk berritzea aldikoz, erridi batentzat, lege berri aukerakoak ardiestea eta yartzea nai dizu iñoizkoz; kistar, abatar eta antziñatar dagerkigu eraldika; lakementiar edo ta adimentiar, ulermentiar abagunez; Erkizaletasunak, beaz, era asko, ugari ta eraskingarriak edo aldakorrak ditu ba; bigarrengo asmokizun eta elburu-eduz, edonolako erriketa-mota ororen besoz-beso nola yoan liteken, azkenengo egi onetxek ager-arazten digu (Españi'n arean, zain ta muin kistar diranakin asi ta, Yainko gabeko erri-elkarketa-zaletarañokoakin).

Abertzaletasuna ostera, bakotxa da, kiderik gabea eta erabatekoa.

17. Abertzaletasunak eta kistartasunak elkar-zer-ikusirik bai al dute? — Ez gutxi gutxi ere egiaz, eta ain ertsi ta barnekoa gañera gero, kistar dirauten errietan abertzaletasunik ez baitditeke kistar-zaletasunik bage; kistar-zaletasuna, erriaren atal bat bezela bait-da, legetan aldaxkaturik, azturatan, oikuntzatan, yolasketatan, erriaren gun eta mami-mamian; eta gai oiek oro nola iraun eta zarberritu-arazi, arnas ta bizia damayoten iturria yabal eta agortuta, Yesu Kisto'ren ikasbidea alegia?

Ez dago Poloni'ra eta Irlanda'ra so bat egin besterik: An apezak eta kistarrak geyen-geyenik agertzen zaizkigu abertzalerik kartsu ta bizkorren, alderdikerietan berex ibil arren; lakementiar, menausle eta masonĉarrak ostera, azkatasun asmoen izterbegi zital.

18. Kistogan sinesle ez izan arren, lakementiar, luterotar, ulermentiar, eta ostantzeko sinisgeak, ez ote litezke egizko abertzale? — Antziñatez Yesu Kisto'ren yarraile diran errietan ez noski, benetako abertzale; *Aberriaren* azkatasunzale doi-doi agian, iñoiz ordea ez aberri-yakintz-oñarriak lengora indarberritzeko asmoz eta erriari antziñako izantza birpizteko ametsez, egizko eta ziñezko abertzale betegin.



# IV

## ABERRIA

19. *Aberria* aipa duzun ezkero, zer erran nai dun ager nai al didazu? — Poz-pozik eta benebenetan. Itxorkunaz eta erranguraz, *Aberria* (abaen erria) *Abenderria* (aba-endako erria) eta *Enda,* orobatetsu dituzu. Ez ordea orain darabiltzkigunez. Enda bat, aurkintza ta leku yakiñean koka ta atandaturik datzanean eta enda ortako gizakiak, egun edo iñoizkoan saillik aundiena edo nagusiena osatu, orra ortxe ERRIA edo ABERRIA. Ala ere ontsa ez baña, zabaltxeago arturik, enda bizi dan lurralde berari eman oi zaizkio izen oiek. Orra or ebertar abenda zut-zuta. Ia lubilla zear dabillalako ordea, berea deritzaken lurralde yakiñik gabe barraiatua, oraingoz ebertar *Abenderria* edo ebertar *Aberriaz* mintzatzea ez litzaiguke xuxen. (Orain bere-berea ba-dute.)

20. Aberria diogunean, beraz, nai ta ez berekin darama endaren gogaia eta eraskin bezela bakarrik edo aldaxka bait'litzakion eskualde edo erkaldea? — Bai yauna; eta alde ortatik bakarratik uler eta onar genezake erranen ezagun ura: sendiluzapena dala alegia Aberria.

21. Erri batek, bere ditun naiz arturik dauzkan lurraldetan yayo izatea, ez da beaz aski edonork Aberri ori bere Aberritzat artzeko ta yotzeko? — Yakiña ba ezetz: Paris'en erdizerdi yayo arren ere, beltz bat edo malayotar bat iñola ere ezin izan partzetar, eta Pernandez'tar urliari edo Gonzalez'tar berendiari, Gipuzkoa'ko mendirik sakonenean lenengokoz ikus arren argia, euskotar deitzerik ez (1).

(1) Aburu au argixego ematea. mengo zaigu. Ainbeste gudate. errietan enda-amiltze, ainbat odol motatako ezkontza-naste, eta

Atzerraldi batez, yudutar bat Euprates onaindian yayo dala ta besterik gabe babilonitar izatea bitxi litzake gero? Edo zulutar bat Londres'en erdi dulako amak, englandar deitzea eta bere Aberria antzo Englanderria maitatzea, eta Abenderri orren egintsarietzaz berearenak bait'liran illarraintzea; edo ta yapondar batek "Gora Errusi" ka ekitea, aitamak Siberi'ra atxiloturik eramanak, bizia an eman diotelako? Orrela izatekoz, itsaserdiz dabillen ontziko yayoberriak, aberririk ez luke noski. Ez ba, ez ba: Aberria derrayogun ori, ainbat biozkada ernaaraziz, ainbat asmo bero idarokiz, ainbat neke, lekari ta lorraldi galde ta eska dizkigun Aberri ori, barneko diranak Aberri

---

abenda endurtze eta sokitze gerta bait-da ba ludian, odol garbi ta aratzaren eskubideak urrixko iñolaz ere, yayo-tokiaren eskubideari ere so egin oi zaio nork bere aberri yatorria aitortzeko, era ortara ere aberri-eskubideak lor bait-ditezke. Aintziña batez ordea, Idazti Deunetan ikus dezakegunez, odolak zizun garrantzi guria.

Ori gerta oi zaigu Ameriketa'ko alderdiotan ere. Odolaren eskubideak endur eta oztuxeak, yayo-tokiko eskubideari atxiki bear. Ortik, alderdiotan, odolak baño lekuak eta aurkintzak zer ikusi aundiagoa naski, nor beraren aberriaren ezaugarritarako.

Odolaren ezaugarria ordea, garbia ba'da, nabarmenagoa da eta yasokogoa eta aldin aunditan eukitzekoa. Argatik argentinatarrok, yayotzezko eskubidez argentinatar zintzo ta argoi geure buruak yo arren, odolaren eskubidez, illarrainka euzkotar yator gaituzute. Euskalduneri buruz, orlako bitxi bizizko mintzaira, nion berdiñik gabea, gaur mintzatzen entzutea arrigarri ba'da eta birloragarri, enda-endaen amil-uyoldetik txoko txiki ortan odol garbi nola dirauken, ametsezko gauza dirudi, eiki.

Eutsi bear zaio bada, gallaldi arrigarri orri eta euzko odol garbia zañetan daramanak, aitor arbaso zar aien atsa borborka nabai bear du barne-odietan. Odolez ala lekuz yayo izatea, ez da ordea aski, gero egintzaz gallaldi ori eta ontarte ori sendesten eta zildazkatzen ez ba'da, ezaguera letorkionean.

Ortik naski, Aberria aldez-bearra ukan da yinik, YAYOTZEZ bakar euzkotar ziranak, maiz ikus genitun len-lerroetan bizia eskeinki; irulez, ODOLEZ euzkotar ziranak, beroien eraile. Nor euzkotarrago?... Odolaren gallaldia ez da beaz euzkotarrarentzako deusetarako, ez ta, sortze-tokiko eskubidea ere euskaldunarentzat onuragarri, aberri maitasunak ez ba-dirakio biotzean gal-gal. Yainkoa'ren alabearrez, enda geienentsuengandik gaindiztiraka ageri zaigu ba euskaldunori odol berexi ta garbiaren istarri ta aillara arrigarri ori eta lakaripean zertan gorde ta osten ez daukagu izan ere.



izenez goraipatzeko, lurbirako zatitxo ta zuin batean sortzea baño ertsigoko esteka ta lokarri ta korapillorik bearrezko zaizkie naski, yatorri berbera ots, ayurri berdiña, antzeko azturak, mintzaira bat, zorion ta zoritxar bere-bereak, alegia.

22. Iñoren Aberria azter-bearrez, ez da beaz nun yayoa dan yakin-bearrik? — Alaxen duzu; olako edo alako sendiko dala yakiteko, zein etxetan sortua dan yakin bearrik ez dan antzo; Yon'en leñuko, Yon'en etxean sor dalako ez baña, Yon'en nare, seme edo aurride dalako baizik, yakitea aski dan legetxe.

23. Iñoren Aberria yakiteko, zertan bear dira ba begiak yar? — Daraman endan, edo ta beste era batez erran gura ba'duzu, daraman abizenan.

24. Beti bat, aldakaitz, iraunkor eta giza-apeta aldakorrakin zer ikusirik ez dun, zerbait da beaz Aberria? — Alaxen da, eta nai izan edo nai izan ez, Lizarraga'tar bat Xerez'ko landetxe batean sor arren, edo Argentina'ko lurraso urrutietan, beti- beti euskotar duzute; Beaumonte'tar zenbait pantzetar antzo; Taparelli'tar nornai italitar; Merri'tar urlia, englandar; Santxez'tar sandia, españatar; Stxiler'tar berendia doixtar eta abar eta abar.

25. Aberria nor edo nork, naitara ta gogara ezin alda ote lezake? — Aberri zin ta egizkoa, bakotxa da beti; nork bere oldez odol-estekak edo aberkide eliekiko belaun ta etorbide lokarriak eten da zatitzeko eskurik ez bait-du, ez ta almenik ere. Bere sort-Aberri ordez, baitazko eta oldezko bat autatzea, ori bai, ba-legike, lenari zor zaizkion maitasun, eginbide ta bearkiak bigarren oni opalduz. Orra; pantzetar bat, alemandarren maitez, doixtar gerta liteke, Alemani'ko aberri-mutil, erri onen mintzaira ar, aien egitsariz lillura, aien guda-mutil lerrotan izena eman eta baita Prantzi'ren aurkako gudan esku ar ere.

Orla dagianari ordea, etoi itz itsusia dagokio, endekatua eta aitamen biraugarri.

26. Lurralde bateko yaurgo edo agintaritza baten batasunak, berekin aldarama menpekoen Aberri-batasuna? — Aberria, Abenderria, eta Enda elkarkide baldin ba'dira beintzat, enda bixiki zerbait dituen agintari baten-peko Laterrian, ainitz Aberri daudela edonor oar liteke. Ostantzean, Alemani'ko V garren Karla'ren agint-makilpean zeuden, plamenkotar, españitar, ungaritar doixtar, italitar eta inditar eta abar eta abar, guzi oiek bat eta

bakarra zutela Aberria erran bearko; orlako astakeri larririk ordea, nork ontzat eman, oraintsu bezela ordun ere Españi bait-zan españatarren Aberri, Plances, plandestarrena, Ungari, ungaritarrena, doixtarrena Alemani eta italiarrena Itali.

27. Aberri ta Laterri, bat deritzaienetzaz, zer derraiguzu? — Ametsezko, asmakizunezko, iraizeko, ustekerizko, abertzale baten erabateko maitasun, arrankura eta opari ez dagozkion aberri kaxkar bat asma nai digutela. Orain Españi zoratzear maite eta aldezte arren, bizia ere poz-pozik emanen luken españatar omen dan andaluztarrak, esate baterako, Yapon bearko luke, bere aberritzat txalotu eta goratu, Laterri orrenpean andaluzi error ba'ledi. Eta biarko batez, ameika-amabi bider, Auña aindiko auzotiarrakin guduka diranez, gudukatuta, Prantzi'ko Agintaulkiari, Españi'ren erdia atxiki-araziz, Napoleon berri bat ager ba'ledi, burgostar batek, eiki, Españi ez baña, arrezkero Prantzi bearko lizuke Aberri?

28. Bi aberriko diran aitamek, euskotarra aita, englandarra ama, guraso oien askasi-semeak, zein aberritako dira? — Askasi ortakoak geyenetan bi abenda oien yitezko gogo-izantzak yarauntsiz abatzartu eta atxiki oi dituzte. Goraberak ordea, berezko yaidurak eta azibideak berekin dituen aldarteak erabakitzen dute etorki bateko edo besteko tasunen nabarmentza eta orretzaz landa, gogo ta naimenak ba'daragi, enda baten gallentza bestearen gañetik nabarmenkiro agerturen da. Alaxen ba; odolari so ba'dagiogu, or odolnasidun euskotarra; gogoari begira ezkero ordea, euskotar yator edo englandar uts eta xain.

29. Aberria maite ukaitean, Aberriak dun lurraldea ere berebat, zergatik maita oi dugu? — Mendeen-mendetan zaindurik eta landurik, lurralde ori gure arbasoen egon-leku eta aberaski gerta dalako; gure abenda ez galtzeko yagonlekurik eskierrena, tinelena eta ekuruena dugulako; gure asaben gorpuzkondoak altxa ditulako; aien odolaz gorriturik eta malkoz eta izerdiz iztaturik, mamorturik eta mordindurik izan dalako; gure aitasoak Kisto'ren yauretxeak antxen eraiki dituztelako; andixetik ameika bider otoitzak zerura igor zituztelako; landu ta edertu ondoren, ondare done zurrian, semeontzat utz digutelako.



# V

# ABERRIARENGANAKO BEARKIAK

30. Gizonaren Aberriarenganako egin-bearrak zeintsuk dira? — Endari, izkuntzari, legeeri, erriko eskubideeri, azturaeri, izantzari, askitzari, ertieri, lurraldeari eta Aberria edo Abenderria osatzen duten beste gai orori iraun-arazteko eta indarberriarazteko, tai gabe lan egitea da gizonaren bearkirik nagusiena.

31. Abenda iraun-arazteko ayoz, nola legike lan? — Aolkuz, eta artaz eta arduraz atze-enda nasizko aberkideen eskontzak eragotziz edo urriaraziz. Euskotarrona bezela enda urria eta murria duten erriak, ontan larrieneko egin-bearra dute; aleunkako eta mileunkako gizakidun enda, aldiz, iraungitzea eziña ez ba'zaie ere galtzoririk ez bait-dizute, aldekorik ere.

32. Noralde onenak lekazkioken ezkontzari, arrotz endako ezkonkide dalako, uko egin bearra, gazte batentzat geyegiko eta larregiko oparia ditekenik ez al deritzaizu? — Opariaren goitandia, ongi baño obeki dakust, aundiagoak ordea, zor dizkiogu Aberriari.

33. Ara ba, ta, neska bat euskotarrakin edo atzerritarrakin bordaltzeak, alako garrantzirik bai al du ba? — *Neskatx bat*, atzerritarrakin ezkontzetik, ez datorkio naski endari alako kalterik, olako ezkontzak eundaka ta aleunka egiten ba'dira baña, eunki luzerik bearko ez dala ain enda urria lorrintzeko eta atzintzeko, ontsa oar ziñezke naski.

34. Erri-mintzaira iraun-arazteko, nola bear du abertzale batek lan egin? — Mintzaira ori erabilliz; edo ta ez ba'daki, ikasiz; eta ikasteko adiñean ez ba'da, ondorengoeri erakuts eta mintza-araziz.

35. Eta erriko irakasleak ez ba'daki edo ta irakats nai ez?

— Erritik yoan bearrezko agindua goitik datorkion eta euskera dakinen bat eta irakatsiren dunen bat izenda dezaten, elkar bitez abertzaleak.

36. Besteenpean bizi diran endaentzat, irakasle aldatze ori eziña dala ez al zera ba oartzen? — Agintearen yabe diran endak, pekoen izkuntza gal arteko onik ez bait-dute ba. Ezinkizun ori ongi bezin argi dakust; euskera indarberritzeko asmoz abertzaleak elkar artuta, gogoz, kemenez eta suar, batera ekiñen ba'lute ordea, ezinkizun ori, zearo lurrinduren litzake, euzkiak yotako errilañoaren antzura. Uztarripeko erri baten elea, azpiratzalle lezayoken endaren bidegabekeriz eta ankerkeriz baño, askozaz azkarrago eta iradugo etxeko eta barneko axolkabekeriz, larrulasokeriz eta alderdikeriz agel ta izkuta oi dala, yaun orrek sinist idazu.

37. Sorterri-elea irakats liteken garaia eldu deno, zer bear du abertzale aita batek egin? — Semeen biotz-mamiñan izkuntzarendako maitasun beroa irazeki, lenbiziko mugonez eta eskaidaz, ikasteko uxi irrikagarria pixt-araz eta berak eta bereok miian duten elea, atze-elea, beuren enda zapal da erauzi arteko onik ez dun endarena dala bein ta berriz erran, aitor eta berraitor.

38. Neskame ta iñudeak dituzten etxeetan, aberri-mintzoa semeeri irakasteko eziñik bai ote dute gurasoak? — Bai zera; guzien aintzin eta len-lenik etxeko izkuntza irakasterazteko, errimintzaira dakiten neskame-iñudeak ekarri ere ekarri baitlitzazkete gogara.

39. Aberri edo enda izkera yakiñik, semeeri irakasten ez dieten gurasoetzaz zer derizu? — Aberriari buruz, oar gabe bada ere, azpisuge dirala eta Aberriari eriotza dakarkiona ez ote bera ere eriotz-obenduru? — Yainkoaren aintziñean, erantzukizun larri bat geiago.

40. Ainbesteko garrantzi al du, erriak bere izkuntza ez galtzea? — Ainbestekoa baño aborogo guzien gain, endaren zain, gun ta gogo bait-da, aren izantzaren len-agergarri zin ta yaukal, leñargiaren zurkaitz, yatorkiaren yakilego egiti, berexgarririk beñen, irauntasunaren aitorlerik eskier eta ziurren.

41. Nola bear du abertzale batek lan egin, Lege-Zarrai eusteko eta birbiztu arazteko? — Ikasiz, itzaz edo idatziz aldeztuz, enparau endakoenetik zenbaterañoko aldea dun agertuz, oldez



eta gogoz, zutik daudeno betez, mantxungaz, onturrez edo etekin zurrian atzerrikoetara linbur eta yo gabe.

42. Eta nola bear da erriketa gaietan yoka? — Ongien, zinkien eta egokien yoka ta enda aldezten dakusan alderdian izen emanik.

43. Eta adigorri eta izantza gaietan? — Aizuntzen, naasten eta galtzen ez utziz, enparau erri eta auzo-endaetatik berexgarri dakiokena nabarmenduz.

44. Eta aztura oituretan? — Tinko atxikiz, endaren dedu eta aintzatzaz goraipatuz, lorrin nai dituztenak naga ta ezets, arrotz-kutsuduneri akar eginki.

45. Eta arbaso-askitzetan? — Iñoiz aazten utzi ezta. Idazten dakianak idatziz gomutarako; ezperen ondorengoen oroimenean bipil, abaska eta bilduma.

46. Eta ertietan? — Onu, txalo, langintz, soroskin eta ziz, lagun eta arnas emanki.

47. Aberri-lurraldeak zaintzeko galdu gabe, zer bear du abertzaleak egin? Iskilloak artu, eta etsaiak mendera ta uztarripetu ez dezaten baita bizia bera eskeiñi ere.

48. Alta, nola bearko dun abertzale Yainkozaleak, Aberriko yaurespide ta sinismenaren alde yoka, oraindik itzik ez didazu aipa? — Yoka-bide au eta bearki au ain ezaguna ta yakiña baitduzu batetik eta bestetik ain guzien gañetikoa, berariz ta yakinara utz bait-dizut besteengandik berex eta azkenerako zure itanduaren aiduru. Eta Yainkoa Aberria baño ere lenagoko dala bein betiko yakizu bada. Eta bata lurtarra eta iraizekoa danez, Yesu Kisto'ren yaurespidea, alderantziz, zerutar, izadiz gaindiko, eta enda berexkeririk bage, erri guztien eta gizaki danen yareibide. Beaz bien arteko erkabiderik, ez ditekela gomuta. Abertzale Yainkozale baten eginbearrik garaikoena, ertsiena eta beiñenekoena arean, Kisto ezagut eta maita izatea eta araztea da, burupide duteneri men egiñaz eta Elizaren irakatsiak onartuz.

# VI

# EUSKO ABERTZALETASUNA (ENDARI BURUZ)

49. Zer da eusko-abertzaletasuna? — Eusko endari, bere legeen arabera, eta ostantzeko beste enda guzien agintepetik yarei eta azke, bere buru-yabe eta naitara eraen-ala, aitortzen eta aldezten dion erriketa-era duzute eusko abertzaletasuna.

50. Bai al du oiñarririk erriketa-era orrek? Izanen ez dizu ba? — Eusko endak, ludian dirauten beste endaengandik dizun bitarte eta ezberdintasun nabaria, orra alderdi orren oñarri.

51. Egitakoa al da ba bereza ori? — Senean diraunak eta zerbait ikas dunak ezin uka besteko.

52. Nola egiztaturen zenuke? — Orok aitu lezaketen iradipen argi eta uka-ezin onetxez: Soizu: Mintzaera ezberdiñak abenda ezberdiña dikurrela len ere erranik dizut. Euskera, muin ta erroz, besteak, oro ez bezelako bait-da ba, abendak ere guzien gain, ideke bearko.

53. Mintzairak abendakin dizun elkartze ta zer-ikusi ori, orixe ezin dizut ikus al. Orizu ba argibide bat: Españatar bi anai, ezkonduak, ontzi batean itsasoratzen zaizkizula; ontzia ondoratzen dala; katazka larri guziak ondoren, eta euntalako gaitzurretatik itzuririk, anai bat emazteakin izaro batera, eta bestea beste batetara legorreratzen dirala; iñortxo ere an bizi ez dala; euren artean ez eze, beste iñortxorekin ere yarduterik eta erasitzerik ez dutela; ez irakurtzen, ez ta idazten ere ez dakitela eta idazkitxo batño ez dutela berekin; egunoroko autuetako eta izkimizkietako erdel itzak besterik ez dakizkitela yakin ere; Andik aldi batera, beroien eta ondorengoen elea gero ta areago bestelakotzen yoanen duzu? — Bestelako itz ugari darabiltzkikete; ugartera irixtean, gauz berriekin arki bait-zitezken bi sendiok eta berein izen berexiz izenda. Aditza alde banatara erabil lezakete, izenak berebat, itzak alda eta era bitara asma eta elkar; aurretiko españatar esakun arrontak berak, aldatze bixikiak ukanen dituzte bi ugarte oetan; itz batez, eunkada batzun ondoren, bi izkuntz erabilliren dituzte.

Ala ere, mintzaira oiek biek, aizpak izanen dira beti, españatarranaren alabak, zenbait txikikeritan antz bereko, sorterro bateko zantzu, azkasi-ondarra laster igarri litzaieke eta izkelari yakintsu eta ikasle nornaik, beuren arteko aidegoaz usu ta einera yabe liteke.

54. Eta sendi biok, elkarte zenbait edo artu-eman batzuk ukan ba'dituzte? — Orduan, edo ta ele bakotxa edo ta bi ukan arren aundigoko eta nabarmenagoko senikidetza oarturen zaie, artu emanik ez dutenen aldean.

55. Uler dut diozuna, eta erran ez ezik, egizta ere egiten ba-dakizula ba-dakust. — Gañetiko argibideok alta, eusko abendari buruz yar ditzagun. Euskalduna, latera-abendako ba'litza, aren izkuntza, italiarrena, pantzetarrena, españitarrena, portugaldarrena, edo errumanitarrena bezelaxe, latindarra litzakela noski ezin uka zuk; doixtar ba'litz berriz, suekotar, noruegatar, danestar, alemanitar, plamenkotar, englandar, eta austritar endak diran antzo, doixtar genuke euskera ere; eslabotarra ba'litz ordea, errusitar, polonitar, boemitar, serbitar, bulgaritar, erriak legetxe, eslabotarra litzake euskera; keltar ba'litz baña, bretondar, "higlander" eskozestar eta irlandar abendak, diranez, keltarra litzake euskera ere eta orla enparau endaz. Euskera latindarra ez danik, ezta doixtarra ere ezta eslabotarra ere, keltarra gutxigo, ikus besterik ez daukazu ba, beste mota oroetan biltzen diran gañerakoekin zer-ikusirik gabea gañera gero: ontara ezkero bada, euskalduna, eusko abenda, beste endaetatik ere berexia dala aitortzea, noraezeko zaigu.

56. Erran dituzunak oro, ontzat damazkitzut; alare, eusko abendak, ain berexia izanik ere, beste ludian diranakin aiko edo erkidego aztarnaren bat ba-lezakela uka eziña ez al da? — Yakiña ba apur edo geigo, urren edo urrineko, sinismenak dirakaskigunez, Adan da Eba'rengandik bait dugu danok yatorri, aiko-kutsu zerbait ukan bear; Adan da Eba'tik oro sortu arren, beltzak zuriengandik enda berex eta bixiki litezken bezelaxe, euskaldunak latindarrengandik, biek len-gizonaren seme

izanik ere, enda banako izatea ezerk ez bait-du galarazten. Era berean, aidego zerbait ukan lezake euskerak ludian dabiltzan enparau izkuntzakin, ez ordea erderak eta pantzerak edo ta errusierak eta polakoerak bata bestekin duten urbilleko eta aldeneko aidetasunik ere.

57. Aldizkai guztiokin euskalduna etorkiz ez dala ez españitar ez pantzetar aitor eta adieraz nai duzu beaz? — Egi, egi, yauna; englandar, doixtar, errusitar, ungaritar, turkotar eta eladetar eta ebar ez dan einean. Euskalduna, españitar edo pantzetar dala erraiteak, iru okerkuntza eskerga daramatzi berekin: abendari, lutelestiari eta erriketari buruzko utsuneak.

*Abendari buruzko okerra:* Españi diozunean, españitar enda ba'diozu, españitar endakin zer ikusirik ez dula eusko abendak len ere ager-arazi dizut.

*Lutelestiari buruzko okerra:* Españi diozunean, Iberi'ko ugartekia ba'diozu, euskaldun-enda erdia, Auña'tik aindi bizi duzu ba.

*Erriketari buruzko okerra:* Españi erratean, Españi'ko Laterria [1] aitor nai ba'duzu, 1839 garren urte arte, Auña onuzko euskalduna, ez da ba egon españatar agintzapean, ez ta orain ere Auña aruzkoa.

58. Euskaldunak, pantzetar naiz españatar ez gerala, egiegi ba'da eta ain egi argi ta garbia, nola erotzat yo dituzte ba egi onen aldezleak? — Zima gaiztokoentzat, okerrean tenkortuentzat, egi garbirik ez ditelako. Bakuneri eta xumeeri einera-einera sartzen zaizkien egiak ez al dira Itun Berrikoak? Alare auriko zitzaizkien yudutarreri, erokeri eta tzorakeri, sinisgabeeri. Zuk ordea, orlako errankizuneri tikieneko ardurarik ere ez gero? Eragozpen eta esiak gora-bera, egiak ideki bayetz bideak, eta euskalduna, españitar edo pantzetar ditekela erraten duna ero garbitzat eritziren duten eguna, laster dator.

59. Enparau endakin erkiderik eta antzarik ere ez dun eusko enda onek, naasketarik gabe, gaurdañokoan garbi iraun al du? — Bai yauna, naas ba'litza, ain enda urriko izanik, laster zitzaken bestekin enastua eta azkênik ezkutatua, euskeraren oroitzarik ere ez genun gero onezkero. Endaen nasketa bera,

(1) Edestiak dagerren españatar Laterria diogu; gaurkoz euskaldun enda zati bat Españi'ko Laterripean bait-datza.



euskeran bertan ere agerturen zitzaigun. Euskerari ordea lateraren, pantzeraren, españeraren, kelteraren, doixteraren eta ez ta beste Europa'ko baztarrik billatuenetako mintzairaen aztarren eta kera txikienik ere ez dagerzkiogu [2]. Gure egunok arte, ba arean, eusko abendak garbi diraula bearko aitor.

60. Gure egunotan ere, antziña bateko araztasunaz eta ordun bezin oso irauten al du? — Ez yauna; Gaurko euskaldunak, sortzezko leñargi, argidotarra, asabeen lege ta oitura ederrak sayestu-ta, ogasun zalekeriaz, atzerritarrekiko ezkontzari ez baitdagiote muzin. Alta, loasma ortatik albait lasterren atzarri bedi, euskalduna eta izaki guzien edura, endari iraupena dakarkion alegindu.

(2) Eusko itz garbitzaz ari gerala, yakiña noski, ez tamalez oraintsuko erderazko ta pantzerazko enas oietzaz, Itz zikin arrotz oiek, euskeratik astan bear dira eta beuren mugatara iraitzi.

## VII

# EUZKO ABERTZALETASUNA EDESTIARI BURUZ

61. Eusko endak, gañerako endatatik dun bateztasun ortatik soilki euskalduneri al datorkie beste ostantzeko aginpiderik bage, beuren buruak zuzentzeko eta burubideratzeko eskubide ori? — Bai zera; eskubide orren gizaldietan eta gizaldietan eragoteak berak, dollorkeriz eta amarruz ebats arteo, ba-dizu indarrik aski ortarako.

62. Zer erran nai du Euzkadi'k? — Edestiari yarrai, Euzkadi'k, eusko enda dio, eusko gizaki, eusko erri, eusko Laterri Biltzar (1).

63. Baskonia itzari, ez al diote bateonbatzuk erran nai ori

(1) Egi au gure Sarmiento aundiak, eusko berpizteari arrigarriro amar urte aintzinduz, Ameriketa'tik argi, garbi ta egokiro aldarrika zun, garai artako zenbait izkuntz-nasketa alde bat utzita, yakiña: "Euskalerria, edesti aintzindik Auña mendian, Prantzi ta Españi bitarte bizi dan erria da. Alde batetik Bizkai, ez ordea Españi; Naparroa bestetik, ez noski Prantzi. Ludia naasi duten biurritzak, endak endaen esetsaldian, Europa zear eraso dute itsasuiñak bai'liran eta gogorrenik, Iberia zear. Orla txandaka, kantabitar, iberitar, keltiberitar, penizitar, erromatar, godotar, arabetar, eta azkenik españitar bilaka duzu. Bizkai ordea beti Bizkai, euskaldun, giza-ugoskak oro ango mendienan erayo zran, armonak garaitzeko kemenge. Erkiderik ez du Euskerak beste Europako naiz Asiako elekin, dazagutzigun yakintsu-erriak baño zarragoa, beste endaen antzeko aldaketarik gabe."
(Sarmiento'tar D. F. Euzko-Deya. B. A.'en Eibar'ko Txikito eta Paysandu B. A.'ko "El Nacional" izperringian ager ta XLVI idaztian. Sarmiento'ren Idazti Pilla Osoa. "Luz del día" argitaletxean. B. A. 1953-210 gn. orrian.)



berbera ematen? — Bai yauna; ez ordea ain xuxenki; Baskonia itzak berez Naparroa eta Gipuzkoa'ko zenbait zati bakarrik adierazten bait du.

64. Aintziña baten Euzkadi edo eusko Aberria, zenbat laterritan zati oi zan? — Askotan; garaikoenak eta ezagunenak ordea sei ziran: ots, Araba, Gipuzkoa, Bizkai, Naparroa, Lapurdi ta Xuberoa, euren artean azke oro eta ez iñungo Laterripean ere.

65. Gaurkoz, norenpean datzate sei Laterriok? — Bizkai, Araba, Gipuzkoa eta Naparro'ko bost eskualde (Naparro goia osatzen dutenak) Españi'ren audiapean datzate; Be-Naparroa, Lapurdi eta Xubero berriz, V garren Karla agintalkiko zala, anaiengandik berexiak, Prantzi'ren buztarripeko. Laterri oekin batera, aipa ez ditudan gañerako laterritxoak ere, galdu egin zuten beuren azkatasuna, oetakoren batekin bait-zeuden elkarturik, azken aldera.

66. Noiz galdu zuten euren buruyabetza Euzko Laterriok? — Auña aruzkoak, 1789 garren urtean, pantzetar matxinadakoan; Auña onuzkoak, 50 urtez berandugo, 1839 garren urtean.

67. Zein eskubidez ken zitzaion azkatasuna Euzkadi'ri? — Eskubide guzien ukamen dan indarraren indarrez.

68. Euskaldunen kaltetan orlako bidegabekeria yauki ondoren, azkatasuna berlortzeko asmorik gal ote dute euskaldunak? — Iñoizkoz ere ez; eta euskotar garabe baten bularrean arnas dirauno, Aberri-azkatasun irrikaz biziren da.

69. Auña onunzko Eusko Laterriak, 1839 garren urte arte azke egon zirala nola diozun ezin uler dizut; 1200 garren urtean Gipuzkoa'k, 1332'ean Araba'k, 1379'ean Bizkai'k eta 1512'an Naparroa'k, Kastilla'ko Bakalduna, meneko zurrian, bakaldun ta yauntzat auta zuten da. — Kastilla'ko Bakalduna beuren yaun ta bakalduntzat autu ondoren ere, Eusko Laterriok len ziran bezain azke ta yarèi ta yaun iraun zutela yakizu lengo lege berberakin, lengo lege-etxeekin, lengo-lengo biltzarrekin, ebazmen, gudalmen, ogasun-eralmen da oro lengo eine-einean eta, nola liteken errexki oarturen zera (1). Etxe-

(1) Españi'ko Karla I, eta Alemani'ko V garrenaren garaian, agintari orren pean, Aberri guztiak, euren artean egizko elkarte kistar bat eginda bizi ziran, yarei azke ta eskudun, orain-

koren bat, yaun ta bakaldun orde, yaun ta bakalduntzat Españi'koa onartzea, beste aldakuntzarik ez bait-zan (2). Eta aldakuntza oneintzaz, ona gañera zer oar dezakegun: Aipa bakaldun aiek, Kastilla'n zuten aala, alegia Eusko Laterrietan zutenaren ondoan bestelako zala; Euzkadi'n, Kastilla'ko bakaldun ziranez ez baña, Naparroa'ko, Araba'ko eta Gipuzkoa'ko bakaldun eta Bizkai'ko yaun zurrian agin oi bait zuten. Kastilla'ko bakaldun izatea, etzitzaien naiko, Eusko Laterrietako yaun edo bakaldun izateko, Eusko Laterrien baiezkoa, ezinbesteko bait-zitzaien, Lege Zarrak ongi ta txintxo zaindu ta beteko dituztela zin eginda ondoren gero (3).

70. Alta, Auña onuzko euskaldunak, 1839 garrengo urte arte, beuren Lege ta Legarrak eratzea esku-eskuko ba'zitzaien, Españi'ko agintariengandik eta Lege Batzarretatik sorturiko Legeak, ondikozko eta urte esteyagarri ortara arte, Euzkadi'n indarrik etzutela yakiñen gañeko gauza noski? — Ezin obeki diozu; eta ara nundik damaidazun, Euzkadi'ko erki oien azkatasunaren alde, erantzunik ez lezaken adizkai bat ekartzeko eretirik bikañena, Kastilla'ri batu zitzaizkiolazko batasun ori gora-bera. Soizu ba: Laterri batek izan ere, bere azkatasuna noiz galtzen du, eta beste baten meneko yarri? Legeak emateko eta ontzeko eskubidea gal ondoren noski, eta beste batenak ar-bearrezkoan. Auña onuzko euskaldunak ordea, eurentzat eta euren Batzarretan edo Biltzar Nagusietan zegitziten Legekin bizi izan ziran ba 1839 garrengo urte arte, eta Kastillakoak edo Españikoak Txina'koak edo Englanderri'koak añaxe beartzen eta bete oi ziran Euzkadi'n. 1839 garren urte arte, beaz, Auña onuzko Eusko Laterriak Españatar Laterritik berex-berex eta bakar bakarrik bizi izan ziran.

71. Eta Euskaldunen ebazmenatzaz zer diozu? — Legeena bezain eskubidezko eta Españi'koakin zer ikusirik gabea ziraula; 1839 garren urte arte, beko ta goiko auzitegiak ba-genitun euskaldunak, españatarrengandik, berex, eta ebaztegi aiek, egin ere, Españi'koen edura ez baña, eusko-legeen araura zuzutsa zegitela, erran bearrik ez dugu.

72. Eta gudakintzaz bai al duzu ezer erran bearrik? — Bai yauna; Eusko lurraldeak aldezteko bakarrik ar zitzazketela iskilloak artu ere euskaldunak eta Eusko Biltzarrak baimendu ezik iñor Euzkadi'tik at ateratzerik etzeukaten Españi'ko bakaldunak, ez ta sari truk ere euren gudaketara edo gudatokietara (1).

73. Txindi-arazoetan ere, eskuko, al-ziran Eusko Laterriak? — Bai yauna; Zergak leporatzeko esku, berak bakarrik zuten, baita legar-bilketa eta eralgiketak egiteko ere. Xotx bat etzioten ordaintzen Españi'ri eta Españi'ko Bakalduneri aldikal saritzat zemaicten urrea ere, Lege Batzarrak edo Biltzar Nagusiak eskuikusiz zemaioten adiguri bat zenun eta ukar ori bera, Bizkai'ko Yaun zurrian zegioten bizkaitarrak; eta giputzek, naparrak eta arabarrak, Gipuzkoa, Araba ta Naparro'ko bakaldun zurrian.

74. 1839 garren urte aintzindik, emendiko Euzko Laterriak euren mugak Españi'koengandik berex, bai al zituzten? — Bai yauna; baita Españi'tik berexiko zerga-mugak ere (2) Españi'ko zerga-bakurak orain antzo, Irun da Yaka'ko mendartetan ez baña, Ebro unaindian Eusko Laterrietatik egoaldera arki oi ziran, orduan; eta zerga-tokiok aipatzean, ona zer datorkidan burura: zergaketa utsakin eta toxa-belarrak zekarken arielakin eralgi-bearrak oro, beste astaz sorta-arazi barik, zegitzazketela alazo Eusko Laterriak.

75. Eusko azkatasun eta buruyabetza orrek, Ludi-aberri arteko elkarteak egiteko aiñako eskubide bai al zun ba? — Noski ba; españatar bakalduntzakin zer-ikusirik ez duten beste Laterriek

---

tsuko england "Commonweath bezelatsu, garai ta berezak landa."

(2) Zortzi urte aietan, Bizkai'ko yaun ziraun Yon III garrenak, Yon I izenez, Kastilla'ko yauralkia yarauntsi zizun 1378 garren urtean. Beaz Yaun da Bakalduntzako Kastilla'ko Bakalduna Bizkai'k ez baña zortzi urte aietan Bizkai'ko yaun zana, Kastilla'k lenengokoz ar zizun bakaldun.

(3) Kastilla'kiko batasun ori, ordun zeritzaionez "eque principale", edo gaur generrakenez, gizonari, bakaldunari atxikia, ez Kastilla'ko bakaulkiari noski.

(1) Euskaldun arruntatzaz ari gerala yakiña, beralazko eginbearrezkoz (maixtargoaz edo mutilgoaz) Bakaldun eta Aide Nagusiak, sariz Euzkadi'tik at ilki arazi eta eraman bait-zitzazketen.

(2) Bizkai'k, Gipuzkoa'k edo Araba'k, iñoiz ere ez zuten legartegirik, ukan, yarri al izanik ere, txindi-arazoetako eskudun ziranez.

bezelaxe, Eusko Laterriak ere guda-aurkako edo aldez-bearrezko elkarketak bait-zegitzazkiten enparau Aberriekin. Entzuizu: 1482 garrengo urtean, Kistar-izeneko (ez izaneko) Bakaldunak agintzen zutela, Gipuzkoa'k, Englanderri'kin amar urteko *ongo ta lagungoak* egin zitun. Españi ta Englanderri artean guda sor ezkero, alegia, Gipuzkoa, bienarteko gelditzeko agintzaz, onesgoak autsi gabe eta aien arteko autsiketaren ondorenik egari bearrik bage.

76. Aberri-elkarketak egiteko eskubidea, buruyabetzaren agergarririk garaikoenetako bat ez al da ba? — Alaxen da; eta 1839 garren urte arte, Euzkadi, Españi'rengandik berex-berex eta azke-azke bizi zala ere, ortik aztarnaturen duzu.

77. Ortara ezkero; alaraka garrangariak oyuztatzen diguten batasun edo Eusko Laterriak Españi'ri lot zitzaizkionezko istillu ori zer dugu ba? — Orixe, istillua; ikus duzunez, bi *Aberrien bateratzeketa* ez biñipin, eusko enda, españatar endatik ezberdin bait-dirau egun ere; ez ta *Laterrien batketa* ere; Eusko Laterriak, Españi-Laterritik oso-osorik eta berex-berex iraun bait-zuten gero ere; auxe *geyen geyenik;* euskaldunak eta españatarrak, bakaldun bat-bera izatea bakaldun; doixtarrak eta españatarrak bakotza ukan zuten araura, V garren Karlaren aldian. Españi'k eta Alemani'k bakaldun berari men zegioten garai ontan, Españi, Alemani zala edo Alemani Españi aitortzea, iñortxori gogoak emanen etzion eran, are ta gutxigo noski Españi'ko Bakaldunak, ango bakalduntzaz batera, bakarka euskaldunen Bakaldun edo Yaun zirala ta besterik gabe, Euzkadi Españi'ren zati zanik ez dizu iñortxok ere erratea aizu.

78. Españi'ko Bakaldunak, zein eskubide zituzten Eusko Laterrietan? — Zuzuts-zaintzaren zati bat zegokion, ori ere ordea bearkia zitzaionez, ez eskubide.

79. Españi'ko Bakaldunak zerbait agintzen ziotenean, zer zegiten euskaldunak? — Lege Zarraren aurkako zerbait agindu ezkero, aintzakotzat ez ar; aztura edo Lege Zarraren indarra bururtu eragozbidetzat, betiraundañorako geldi dan esakun ezaguna ebakiz: "men bai, egin ez". Ezpere, agindu oiek euren kabuz sendetsi eta ontzat eman.

80. Españi'ko Bakaldunari, almen guztien yaun da yabe ager oi zan garaietan ere, legez barneko bakalduntza soil soillik zezaugioten beaz euskaldunak? — Legez barneko izatea ere



etzan irixten; euskaldunentzat bakalduntza, izen utsezkoa baitzan enura gabe, Bakaldunak berak ar zuten bon-bonkerizko apainkeri bat agian, eta ain kanore bakotzat zeuzkatelako ain errexki euren bakalduntzarako ar zituztela ere atzerri bakaldunak (Españi'koak alegia) garbiki ageri da.

Bakalduntza ori, etorri ere, erri orren lege ta oikuntza egiti ta *erkaldarrakin* ez bait-zetorren ongi; artu bearrezkoz ordea, etxetik asagotua eta urrutiratua naiago.

81. Zein eralditan gal zuten buruyabetasuna, Auña onuzko Eusko Laterriak? — 1839 garrengo Urriaren 25'an, karlatarren len-guda ondoren, unatuak, amituak eta txemeko egiñak, odolusturik aboro yarkitzeko kemenik gabe, mugon eta egokiera auxe ustia zizun Madril'go yaurgoak lege zital batez, Eusko Legarrak irautsi eta Españi'ko Legedipera eta Madril'tik zetozkioken-pera ertsatzeko eta uztarpetzeko Eusko Laterriok, Españi'ko Laterri-zati zirala erabakia emanik. Arrezkero nagusitasuna galdurik datzate, eta izan ere, Españi-erki ordu-xetik dira.

82. Españi Laterriaren Lege oker, gogor, eta indarzale ark bai al-du indarrik eta agindu-eskurik euskaldunentzat? — Ez yauna; 1839 garren urtean, Lege ta Legedi gaietan, Legar edo Biltzar Nagusia beste agintaririk ez bait-zuten ezagutzen euskaldunak. Euren gain, Españi'ko Legetxe edo yaurgoaren agintaritza, utsaren urrengo zeukaten eta azkatasunaren uzteko beartzea, iñola ere ez zezaken, ez ta bere Lege Zarra orde, Españi'ko Legedia ar arazi ere.

83. 1839 garrengo urte ertun ura ezkero, Españi'ko Laterriak, Eusko Laterri zarrakin elkartasun edo egiunik egin al dute? — Bai yauna; euskaldunen onez baño uste onez egiñak eiki, azken beltzean, antziñako txindi-arazoetako eta arremanetarako eskubide ondarrak zaindu ta malda ayeruz.

84. Baña itunbide oek gorabera, 1839 garren urtean Españi'k Euzkadi'ri egin bidegabekeri aundia, iñola ere ezin gaintxuri eta zillegi yo? — Agitz ontsa diozu; ezin zillegi yo; eta bayezkoan dagon euskaldunak Aberri-etoi-xakia soinean darama eta ez da zañetan dirakion odol orren artzedun.

85. Okerbidez ebats zioten azkatasuna, Españitar Yaurgoari eskatzeko eta galdetzeko eskubide oso ta bete-beterik bai ote dute euskaldunak? — Oterik gabe gañera gero; eta Euzkadi'k,

euskaldunen Aberriak, azkatasuna beryaditsi dezan, bere ondasunak, sendia, yakinduria, soin da gogo igurdiziak oro, bai ta bizia bera ere, opa-erpai bear du egon euskalduna.

(1) Abertzale batekin eukitako eztabaidan, Zuzenaren ezein irakasleak ala ona zer zion: Guda zuzen eta bidezko batean, Madril'go yaurgoak, euskaldunak menpera ondoren, eta matxinatu ziralako len zuten azkatasuna kendu, menperatzaleengandik bergaldetzeko eskubidea yoan zitzaiela. Ona zer iardetsi bear zaion: 1º Gorago erran bezela, amaika bider españatar yaurgoak, batere lotsarik bage, autsi ditula guda geldi arazteko baldintzak ezartzean, eraldutako ituneak eta bestaldekoak ez daudela argatik betetzea bearturik. 2º Indarrez beartua, indarrez ken litekela. 3º Iragan eunkiko anai-gudak, españatarren eta euskaldunen arteko gudak ez baña, euskaldun-españatar karlatarren eta euskaldun-españatar isabeldarren arteko gudak zirala, eta II garren Isabel eta XII garren Alponso'ren alderdiak, euskaldunen laguntzari esker, irabazi zutela. Izan ere, Iruña, Bilbao, Gazteiz eta Donosti, Karla yaunaren aldeko gerta ba'lira, etsaiak zer zegiketen? Eta lau uri oietako biztanleak, euskaldunak ez al ziran? Azkatasuna kendurik ordain bear al zitzaien zintzotasuna? 4º Gure azkatasunaren eriotza zekarkin 1839 garrengo lege txar ura emanda gero ere, orain Españi'ko erki diran lau Laterri zar oeri onguntzak egiteko eskubidea ezagutu zitzaien eta 41 garren urteko legea eta beste itunpenak ere onar zitun Españi'ko Laterriak. Erki oiek beaz itunben oiek salatzeko ba-dute eskubide eta baita berri batzuk aukera eta obego batzuk eskatzeko ere, esate baterako 1839 garren urte aurreko batzuk edo...



# VIII

## EUZKO ALDERDI ABERTZALEA

86. Euzko Laterrieri buruz, zer daskate abertzaleak? — Bein galdu zuten azkatasuna, ber-eskuratzea, 1839 garrengo urte aurrez zeunden einera eta ituinera erakarri eta bakoitzaren azkatasun eragozpenik gabe, Laterriok oro *errielkarte* batean anaitu, euzko endaren bizia ta eskubideak zaintzeko.

87. Asmo oek *soil-soillik eta uts-utsik* ardietsi ta eskondu bearrezko egitasmoa dun erriketa-alderdirik bai al da? — Bai yauna; Euzko Alderdi Abertzalea. Ona asmo oiek bakarrik aldezten ditun alderdia.

88. Nork asma zun? — Arana Goiri'tar Sabin'ek; 1865 garren urtean, Ilbeltzaren 26 akin Abando'n (Bizkai'n) yayo eta 1903 garren urtean Azillaren 25 an, zindoen eriotzaz, Sukarrieta'n (Bizkai'n bertan) il (G. B.).

89. Nolako gaitasunez zenun yantzia Euzko Abertzale Alderdiaren iraslea? — Orlako aundiko iraskintzarako nornairi bearrezko litzaizkioken gai oroz; yaurespideko egien siniste zindo ta atxikia; barne-barneko eraspen; akatsik gabeko atun; Aberria-ganako maitasun itzungi-eziña; arrigarrizko adimen; burnizko ari ta zima; oi ez bezelako salotasun arrago-aldi guzitarako kemen, biotz aundi baten yabe; garaitza aunditarako gai, bai ta nekaldi gaitzetarako ere zut.

90. Buruan nola sor zitzaion abertzaletasun gogaia? — Euzkadi'ren atsarrea, mintzaira, edestia, iraskintzak eta izantzak eta Euskalerri, Prantzi eta Españi arteko elkarbide ta alkartasunak gogalduz.

91. Aren aintzinetik ez al zan abertzalerik? — Euskaldunak beti zeramaten biotz-barnean azkatasun-maitasarrea, 1839 garrengo urtean Españi'k Euzkadi lot zunetik ordea, areago.

Endak eta edestiak ager-arazten zizkien azkatasun-arroñak ayeru zenbait esna-araz oi zuten zenbaiten baitan. Ala ere Abertzaletasunaren yasoin sendoak, iñok baño garbiago adierazteko omena, Arana Goiri'ri dagokio, ark mugerrezko azkunen gañean eraiki bait-zun abertzaletasuna, ikasbide-xortan bilduma, alderdi indartsu, bizkor ta leiari batean, batez ere, aldaxka, berezko bidez ba'doaz gauzak beintzat, alderdi onetxek yaregin bait-lezake Euzkadi (1).

92. Arana Goiri'k bere gogaketak eta alderdiarenak, zein goiburutan xorta zitun? — Goiburu ontantxe: *Yaun-Goikoa eta Lagizarra:* Yaungoiko itzak, Euzkadi gain, Kisto'ren eta Elizaren eskubideeri, men oso ta apala dikur; sinistausketak, targoak, adimenkeri ta lakemenkeri kutsu, yauresketa aizunak, gezurrari buruz, errien eta agintarien axolakabekeriak oro erabat astan bearra. *Lagi Zarrak,* Euzkadi'ten antziñako legeak, erabat ber-zuti-araztea erran nai du, baita Legarrak edo Lege-Biltzarrak, agurgarrizko izkuntza eta asabatar azturak ere, bere lege-gaietan, eragin-bearretan, txindi-arazoetan, auzi-lanetan, gudaritza-eraketan, eta Aberri-arteko erabakietan, azkatasun osoa dagokiolarik.

(1) Euskaldunak, aloterik gabe, beti izan zun enda-anaitasun-ezagutza, Aberriarena ordea iñola ere ez garbiki, Abenderri eta Aberri epeak eta aburupenak, oraingotsukoak bait-ditugu. Bizkitartean, iñungo erriren batek asmatzekotan, Euskal-erriak asma zitzazken aburu oiek, alakoxeko arrandiz yotzen bait-zitun ba beti bere yatorria, bere azkatasuna, bere eskubidea, eta Aberria eta Abenderria osatzeko, besteak ez bezelako batasunez eta gaitasunez bizi bait-zan, abenda bakarrakin, bere-bere zun izkuntzakin, lurralde mugatuetan, gogo izantza berdiñakin, oitura ta aztura antzekoakin erki guzietan; ala ere bere bakartikeri mizto ta leiatsuaz edo ta erki mugaetarako ertsiegiko enyogidura eta biskaz edo, dana dala, aburu oiek biñipin etzitzaizkion otu.

Euskalerriaren bitxikeri arrigarri au, beste erri guztien bidetik sayeste au, zertan ote datzan yakiteko, berebiziko asmakizunak ibilli dizkitzute yakintsuak. Batzuk diotenez, oyezko gertaera au, Naparroa bestalde, aundikalduntzatik bakalduntzara, beste Europa'ko errietan bezela, aldakuntzarik izan etzutelako omen zan. Izan ere, Euzkadi'k aundikalduntza etzun ezagutu. Beste Europa'ko errietan ordea, Aberrien asiera, aundikieri zor zitzaien; aundiki-yauntxoa, ainbeste katazka ta gudaketaren ondoren kapetatua eta enparau bilakariengandik gaillen, bakaldun izen opatuaren ayerrez, leia zano, euskaldunak anartean, yauntxorik eta morrontzarik gabe, euren oitura zarretan gotortu bide ziran, atsarreko erritar, asabatar eta erkaldar baserritar-Batzarretan atxikiak, eta era ortan iragan zitzaien Menderdia eta egungo Mendearen yayotza ikusi. Edestiari eiki, ez makala gero, yauzi yo zioten, aundikalduntz-garai aintzindik, egungo Leterrietaraño yauzi ere. Orduntxe aurrez-aurre Aberri-ebazkizunakin arki ziran, keko-mekokarik etzezaketela gero; ontzat eman edo erri zanez il.



93. Euzko Alderdi Abertzalea, zain da muin, beaz, yainkozale edo sinisle duzu? — Bai yauna; Alderdi orrek Euzkadirentzat, ondorengo guztiakin, sinismen batasuna nai lizuke; len-lenik eta guzien gain Yainkoa. Españi'ren indarpean yausi aintzindik, Yainko Altsu orren agindupeko ziraun bezain zindo eta zintzo irauteko nai lizuke Euzkadi'ren burunagusitza eta azkatasuna.

Eta zalantzaren errañurik ere ez euki: Azke baña Kisto'gandik urrun, edo menpeko baña Kisto'gan tinko eta kirmen, Euzkadi'rentzat bietatik bat auta bearrezkoan, Euzko Alderdi Abertzaleak, bigarrena auturen bait-luke.

94. Uzkurtza izkillutzaz eta yaurespidea erantzukizun, Abertzaletasunaren aurka darauntsatenak, gezur gorriz diardute beaz, edo zer dagiten ez dakitela? — Egi-egia; eta . . . bietan bateko bat nik ere asmaturen dizut: ots, erruki gabe bear dala zirtzil da galuts oyen mozorrokeria ageri-agerian yar edo ta irrikaitz arbuiagarri batez bearko ditugula ertzoro aien iñozokeriak ar da entzun.

(1) Ni Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Yainkoarentzat, zion ardura Arana Goiri'k. Euzko abertzale yator aren itzok, goiburutzat eta bizi-itutzat bear lituzkete abertzaleak oro, Ameriketa'n dabiltzanak baitik bait, an, latera endaen elarantzaz Yainkoa'ganako axolkabekeriaz alegia, edo gure berdingabeko idazle dan Kanpion'dar Artur Yaunak, aitzurdiñetan kolposgarri litzaken errakun garratzaz lioken bezela, "maketaniko dongekeriaz" kutsatzeko gaitzur estuagoan bait-daude ango gure anaiak. Eusko gogoaren erdia biñipin, sinismenak era du, beiñenetako tokia atxiki du beti gure erri-alderdietan ere, eta gure edestiari, barne-barneko muiña ta guna izan zaio, arekin zan sortu, aren eskutik ibilli da, eta ari zor dizkio egitatirik argienak. Yainko gabe Euzkadi berri-berritzea, eziña zaigu, egizko Euzkadi askitzeko eta edestiko Euzkadi ez bait-litzake, gure arbasoen oñarri gañean eraikia ez beintzat.

95. Arana Goiri'ren egiak nola ar zituzten aren aberkideak? — Multzotxo batek lei biziz; geienak oztasun aundienaz, erotzat yo zuten askok egillea, ikuslari, ameskétari eta ezingoaren yarraile.

96. Eta arekin Madril'go yaurgoa nola yardun zan? — Españi'k Euzkadi'ri beti dion "onginai"-giñoan. Arana Goiri'ren irakaskintzak, zenbaterañoko garrantzi aundia eta norañoko ondorenak zitzazketen oartuki, yazarriaren uarretan nai ukan zitun irato, abertzaleen izperringiak eragotz, batzokiak erts, tai bageko auzi, bidegabeko baitegiratze, Legetxetik eta izperringietatik su-gorizko ukaldi, eskuarte oek oro erabil zitun abertzaletasuna ezdeustatzeko eta birrintzeko. Ala ere abertzaletasunaren egiak eta Arana Goiri'ren bulka erremulariak, ezetsaldiaren berezko-apeukoz batera, eragozpenak oro garai zitun; eta engoiti izperringi-sailla ba-dizu Abertzaletasunak alde orotara aldarrikari; nunai batzokiak, zale ori pizt-arazteko; berebiziko aldezlari-eliak, zaintzeko; eta 30 urte baño len, Euzkadi atzipeturik daukaten alderdi arrotz danen gañetik eta azkatasuna atzipatu dioten etsaiengandik, erabateko garaitza baietz irabaz abertzaletasunak eta euzko-semerik geienak aren ikurrinpean lerro.

97. Azken aldiotara, nola zegoan Euzko Alderdi Abertzalea eratua? Agintariak erran genitzakenak iru eineotan: 1º Euzkadi Buru Batzar, abertzale guztien ordezkari; 2º Erki Buru-Batzar, lengo Laterri bakoitzeko abertzaleen ordezkari; 3º Erri Buru Batzar, erri bakoitz ordezkari. Atzerri Ordezkariak ere ba-ziran Euzkadi'tik at, Madril'en, Balladoli'n edo Buenos Aires'en bizi ziran abertzaleen ordezkari.

98. Abertzaleen Alderdiak bai al du ikurriñik? — Bizkai'ko, Naparro'ko eta abar ikurriñak ba-dira, ala ere Abertzale Alderdiak ez du oraino euzkotar oroendako litzaken ikurriña asma, Euzkadi'ren aldeko asmoen ikurrin. (Gerogoko oarrari adi.)

99. Bearrezko ote litzake ikurrin asmatze ori? — Bear-Bearrenetakoa; nortasuna ez ezagutze orren kariaz, etorki bateko dirnik ez yakiteak, eta alderdikerietan aunatze eta akitze orren erruz, galdurik arki bait dira euskaldunak. Ikurrin baten pean euskaldunak oro tinko batzea, bearrezkoenetakorik eta noraezeko arean zaigu ba, eta bat gerala, anai gerala oro, yakin araztea erriketa erabide ezberdiñak gora bera, mengo-mengoeneko.

100. Ikurrin onek, gañerako bakoitzarenak, ots, Bizkai'koa, Araba'koa, Giputz'ena, Lapurdi'koa, Xubero'koa eta Naparro'koa kendu egiten al ditu? — Ez noski iñola ere. Abertzale Alderdiak, Laterri oiek oro *naasbatu edo orobatu* ez baña, bazpatu edo *elkartu* egin nai ditu, *errielkarte aska-ezin batean*, Bego zut bakoitzaren ikurrin berela. Aren gain ordea, zutago *zibuka* bedi Euzkadi'rena, euzko abendaren ikur. Erki bakoitzaren onura ta onturre gain, euren abendarenak datzatela, erki bananduetan eta bixikietan diralarik ere, anai-arteko gudarik bear ez dun erri dirala, orlaxe dute euskaldunak ikasiren.

101. Euskaldunen ikurriña nolakoa liteke? — Arana Goiri'tar

---

(1) Aita Ibero'ren iragarkizun au, egi-egi biur zan. Abertzaletasuna alde-orotara barraia zan eta Bizkai'n eta Gipuzkoa'n erri geyena erabat arekin zan eta beste eskualdetan berebiziko ozteak zetozkion. Au ongi yakin nai dunak Arantzadi'tar Engrazi'ren "Ereintza" ikus beza. Zarautz'en "Zelaya eta Aiza argitaletxean" (1935 garren urtean emana).

(1) Enda bateko, etorki bereko, elkarren arteko sendi-aidegoaren odolbatasun onen egia, bear zaie egunoro euskalduneri gogoaraz. Izakeraren nabarmenkeri bat bakartikeria dizu euskaldunak; ortik gure berexkeri eta banandu bearra. Buenos Aires'ko urian bakar-bakarrik, erakusburuz iru batzoki bixiki eta buruzkakoak ukaitea ezda mingarri ala? Prantzitar euskaldunena, Napartarrena eta Laurak Bat izenekoa? Argentinatar euskaldunak, etzerate pantzetar, ezta españatar, nai izan da ere; napartar, lapurtar giputz, eta abar zeratelarik ere, lenago euskaldun. Utz itzatzute ba, gaitzizen aizun da lotsagarri oiek eta gaur, iñoiz baño gogorragoko eta ankerragoko banan-bearrezko gudaketak bururtu bear ditugun ezkero, lerro ertsitan tinko zaitezte eta atzerrian zaudeteno, zuen izen-abizenak ere utz itzazute, euskaldunak soilki izateko. Batzoki aundi bat iras ezazute, anai antzo elkarturik eta ezagutzak egiñik, elkar maitatuz oro, obeki ta merkego gañera, Aberriaren onlegezko ta ontasun-gaietan dagizuten lan. (Onerаño egilleak) Guk oraino auxe eratxiren genuke. Gaur-gaurkorako ere egokitxo dator egillearen esona. Abertzaletasuna ala, ta erriketa orla, danak sakabanatuta agiri dira lotsagarriro euskaldunak orain ere. Etsaia aski ezdala, gu geok geure buru-arerio, eta indarrak xorta bearrez, abenda, mintzaira, ekanduak eta euskaldun-onoimen onak dirauten, lan egin orde, mokoka ito bearrez utskerietan. Paris'ko Batzar Nagusia ezkero orratik, batasun, azkorri baten zantzuak errañutzen asi diralazko ametsa dagigu.

Sabin'ek asmatua, Euzko Alderdi Abertzalearen ikurriña bigurutzduna duzu: sakoneko gorrian (Naparro'ko ikurdia) konerkako gurutz orrin bat (Ander Donearen gurutza, eguntz ontako Padura'ko erasoa, Arrigorriaga'n, euskaldunentzat ez bait da ba aztugarri) eta aren gañean, txuria (Yainko-ezaugarri). Euzkeldun Batzoki'ko sapallcan lenengokoz zibuka zan 1894 garren Uztaren 14an.

Gaurko egunez (gañera genezake) ludiko lau ertzetan euskaldunak onartua, eta txit ezagutua, ameika gudarien odolez iztatua eta donetsia, azken aldiko Españi'ko anai matxinada deitoragarrian, aldeztu bearrez, engoitik orixe izango da betiko ikurrin bakar, onetsi ta maitatua euskaldun guzientzat.

102. Euzkotarren gurariak, egoki ager ditzaken *Aberri Ereserkirik* bai al du Euzko Alderdiak? — Bai yauna; *euzko abendaren ereserkia*, deritzo, *Arana Goiri'k* itzasmatua, Zabala'tar Kelda irakasleak antzin-aintziñako erritar aaraian eralduta.

103. Euzko Abendaren Ereserkiari, ornigai antzo, zer tasun arkitzen dizkiotzu? — Gai ontako ereserkiari dagozkionak oro. Itzak, yator, errankor eta bipil, ezin geiago; Yainkoa ta Lege Zarra, goiburuaren bi atalak Gurutz-Gernika'ko Aritz irudipean ezin obeki esma ta ondu; eresia, orotx, egoki, martzal, gurena euzko kutsuz yosia, xalo eta ikas-errexa, txaideetan berzelaxe, yauretxean ere abesgarri, ain bait da nare, atsaro eta itzalgarria. Ereserkia ez dakin euskaldunik ez bedi. Euskaldunen biltzarrak ere batzokietan edo biltokietan, Euzko Abendaren Ereserkiaz as ta uren bitez.

104. Ditun asmoak antxitzeko zein eskuarte darabiltzi Euzko Alderdiak? — Egunorokoak ([1]), itzaldiak, zei-itzaldiak, edo

---

([1]) Aburu ta eraikintza orotarako, elbiderik eta iskillorik egokiena, izperringia dugu. Egonorokoa duzute lurbira osoko andregoi. Aburua ark zabal, adimena ark landu, gogara, eta adimenaren bitartez, yaun da yabe bezala biotzetan agindu. Lau egunoroko aundi, lau uriburutan (seietan obeki) ba'ginu orratio, laster letorkioke euzko abertzaletasunari erabateko garaitza. Lerro oek idazten ditun au, bere esku eta bere eginkizunen esku ba'litz orratixe, euskaldunak bizi diran lurditz guztitik zearko bidaldia arturen luke eta eskebatz batez amar aleunkako domua bil bearrezko oyua Yainko'arren eta Lege Zarr'arren izenez aldarrika nezayeke, lau egonoroko aundi ta aberkoi eta "Kukut" tankeratsuko irrizuri-aldizkingi bi argital ditzagun.



bilkurak, erri-yayak, antzerkiak, egi-zabalketarako albiraketak, batzoki eta atsarte-biltokiak, itzerti-yayak eta era ontako gaiak.

105. Eta Euzkadi'ren azkatasuna ardiresteko, azken beltzean, izkilluak ere arturen al lituke? — Euzko Abertzale, Alderdiak, guda arazoa, Euzkadi'ri letorkioken elkaitz, dordo eta arriabar latzena derizkio, ez bait du ba gutxi gutxi ere igurtz yoandaneko eunkietan karla-lakementiar arteko bi oietan.

106. Euzkadi'ri azkatasuna eskuratzeko ametsa, ezina amestea ez al da ba? — Euzko Abertzaletasunaren etsaiak, beti ezpain-ezpañetan darabilkiten iardespide oni lau eratara erantzutea aski zait: 1º Zail eta patar gorakoari, gizaki erabeti eta urtunak ezina deritzotela beti; beuren kaxkarkeri eta lazokeria gaintxuri eta adoba bearrez apika. 2º Erri batek, bate-batera, era berean, eta iraupenez akitzeke azkatasun alde eragon ezkero, azkenez ardietsi egiten dula. Kateak askatzen eta etentzen berrogeitamar, eun, berreun urte iganen zaizkio, baña ildura, biotzil eta amore eman ezik, beingoan trenka egiten ditu. 3º Abertzaleen xedeak eziñak ba'dira, ezin berrorren atzetik ibilli-dabiltzatela osorotarrak, karlatar eta Euzkadi, Lege Zarra ken aurretik zun ituinera erakar nairik dabiltzan beste ainbat alderdi ere.

Auxe diote beintzat ainbeste osorotar, karlatar, lakementiar Lege-zar zaleak, itzez diotena, egintzaz eta alderdiak sendetsi azalpenetan besterik eta aitzikorik aitor arren. 4º Erri baten gaizkabidea, yareitasuna ukaitean ez baña, azkatasuna maite izaitean dagoala. Birpiztu beza Euzkadi'k euskera; pantzera eta erdera euzko aurkintzatatik eta mugatatik astan eta oiltzeraño; enda araztu, gardentzeraño; antziña bateko Yainkoa'ganako sinismen suarra antxit; zeli, ayo eta zudu beroz bere azkatasuna irrika; oituretan, izakeran eta arian atze diranetik albaitez urrun; adion eta inka orotan, yarei-asmoak azal. Euzkadi mal-

---

Il-urren, Yainkoa'ri atsa eskeintzear, oldez Euzkadi txokoaz oroit oi zeraten Ameriketa'ko okidunak. Goikoa maitatzen txoko artantxe ikas bait-zenuten. Berez ezazute ilburukoan, argitaltzen diran euzko aberkoi egunkarientzat zillar-poxi bat. Euzko egunkaria sortuz edo lagunduki, ikastetxeak irasiz, gaxotegiak eraikiz eta beste edozein erri-eraikintza onurakor zuti araziz baño, askozaz geiago, ezin erran ala geiago, dagizute zuen Aberriaren alde.

da ta gaizkatzeko auxe aski litzake eta mendeen mendetan malats gotor eta sendar iraunaz, betikotasuna edireiteko.

107. Euzkadi'k azkatasuna ber-iritxi-ta ere, Laterri aundiz eta indartsuz bait-dago inguraturik, nola atxiki azkatasun ori? — Iritzi au dionak, lurbira luzean, Laterri aundiak bakarrik bizi diran ustea dizula erran liteke, eta indartsuak, soillik. Txikiak ere ba-dira. Montenegro, Errusi aldean baño, Euzkadi, Españi'ren aldean aundigo ez al da? Txemeko egiñik zizun Españi'k, bi karlatar gudaketan Euzkadi zapaltzeko. Ala ere euskaldunak ordun, atzipetuak zebiltzan iñoren asmoen alde. Besterik ziteken noski euren azkatasun alde soil soilik yoka ba'lira, eta españitarren buztarripean bizi baño, iltzea lenago auta balute, Españi, Prantzi, Portugal eta Englanderri, lau oien elkartea gora bera, nork daki guda ura nola amai ziteken?

Karla Aundiaren aldian, XIV garren Koldobikaren, Napoleon'en, yainkotiar omen ziran Bakaldunen garaian, V garren Karla ta II garren Pilipe, oraingo baño aundigoko Laterri-yabe ziranean, azke bizi izan zan Euzkadi; ordun bezelaxe, gaur ere buruyabetzan balirauke, Prantzi'k eta Españi'k batez ere, kistar-sinisle diran arauz, yoka nai ba'lute, Aberri arteko arazoetan betiko zuzenari so.

108. Zure egiztabideeri iñola ere muzin ezin egin. — Ainbatez areagoko indarduna ez dizut ba oraindik erran. Ona: Euzkadi yainkotiar duzu; Yainkoa baitan siniste ziña dizu: Men dagioten erriak, ez ditula Yainkoak zapuzten ba-daki Euzkadi'k.

Gudaldi batean gurenda, *gudarozte tirluetan* ez baña *goitik datorken indarran* datzala, gezurrik gabeko ezpañetatik entzunik, ba-daki ongi Euzkadi'k.

Ona ba: noiz edo bein, buru-buruyabe eta billaldeko erriak itsatsi dizkioten geren, natu ta teyu likitxetatik txau erabat Yainkoa'renganaturik, euzko asabeen bidea artuta, Yainkoa'ren morroi zintzo agertzen alegin dedinean, zeren aiduru, nungo lurreko ala ta arrokeri-beldur daiteke Euzkadi?



# IX

## LEGE ZAR EDO "FUERO" ZALE ALDERDIAK

109. Euzko Abertzale Alderdiaren irasleaz, Alderdi onen xedez, ardiesteko darabiltzin eskuartez, antolatuta arkitzen dan eraz, baita maizenik yauki oi zaizkion galdekaitzaz ere naiko erran diguzu. Lege Zar-zale Alderdietzaz erraiguzu orain dakizuna. — Beste zenbait yakingai atzalkizunetan, buruzki ditugun arren, Lege Zarra aldezteko, naikara arturik bada ere, orobatera datozketen Alderdiak dira Lege Zar aldeko Alderdiak.

110. Zenbatsu dira? — Berein; eta danen aipamena egitea, ez da errez. Ona batzuk: Osorotarra (integrista), karlatarra, atxiki-zalea (conservador), lakementiarra, erkaldarra, oñordetarra (legitimista), bonapartetarra, laterritarra, (socialista). Eta alderdi zenbait oien barne, beste zati edo alderditxo.

111. Ainbat bana-banako diralarik, bi sailletan ez ote ditezkete ikol? — Bai yauna; osorotarra, karlatarra eta oñordetarra, *Yainkotiar* sailko. *Lakementiar* izenpean, aldiz, atxikizalea, bonapartetarra, lakementiarra, erkaldarra eta laterrizalea.

112. Erderazko "Fuero" itz orrek zer adieraz nai du? — Euskalerriak ukan ditun eskubideak.

113. Euzko Abertzale Alderdiak "Fuero" itz ori, zergatik astan du eta Lege Zarraz edo Lagi zarraz truka? — Erki bati, uri bati, edo gizaki bati eskuratutako gallaldi arrunt-ateko edo aterontziak dirala bait-dio Erdeltzaindiak "Fuero" itzaren esanaia. Euzko "Fueroak" ordea atze-bakaldun edo yaurgoak emaniko arrunt-ateko epantsuak ez baña, atzeen artalanik gabe, euskaldunak, bere buru yaun da yabe zurrian, etxerako eta euren onerako egin zituzten legeak bait-dira.

114. Baña Euzko Legeak edo euskaldunak etxerako egin zi-

tuzten "Fueroak" antziña artan eurenak izan arren, *Españi'kin batu omen ziran garaia ezkero*, españitar bakaldunen adeiez, eskuzabalaz, baimenaz, gallaldiaz, aterontziaz edo nai duzunaz ez ote zirauten euskaldunen esku? — Orlako aokaldirik ez; otoi!

Euskaldunen bakaldun edo yaun izango bazan, mengo-mengo eta noraezeko —*conditio sine qua non*— zitzaion, Lege Zarra edo *Fueroak* zaindu ta gordeko zitula lenik ziñez agintzea. Euskaldunen einean beaz, eta aiek bezelaxe Lege Zarra betetzea bearturik zeunden Españi'ko Bakaldunak eta oraindik areago eta aborogo; euskaldunak euren Batzarretan edo Legarretan ken, xuxen edo berritu bait-zezaketen osotara naiz atalka, iñola ere ez ordea Españi'ko Bakaldunak, naiz ta Euzkadi'ko yaun edo Bakaldun izena eraman.

115. Gure arteko *Fuero* zale alderdietara so egiñik, euren agirietan edo aldarri-ingietan zein eskubide aldezten dituzte? — 1839 garren urte ezkerozkoak edo eguntz deitoragarri orren aurrekoak? Ona iardets ez nezaioken edo ez nekiken itaune bat, beroiek ere ez naski, ez dut uste garbi, xain, eta bear bezela azal lezaiguketenik. Aien aldarri-egitarauetan ez da beintzat garbi ageri. Ala ere yainkozale diran Fuero zale Alderdiak, Euzko Fueroak osotara ekartzea nai lituzketela erran liteke; lakementiar alderdiak 1839 garren urte ezkerozko egiuneak soillik.

116. Bi iritzi oek emateko, zertan tinkatzen zera? — Karlatar eta osorotarrak, errikera amets betea, XVI garren eunkia dizutelako, yainkotiar Bakaldunen, V garren Karla'ren eta II garren Pilipe'ren eunkia eta lakamentiarrak, anartean, 1839 garren urte aurreko egoerara biurtzea nai ba'lute, españatar lakementiarren alderdietan egon ere ez legozketelako, urte ortako zoritxarreko lege arrekin, gure Lege Zarra erabat eraindu baitziguten.

117. Zertan datoz bate-batera berein alderdi Fuerozaleok? — Atzerrikerian eta itzetik-ortzera abertzaleeri "laterriausle" gerengarrizko izena egoztean.

118. Zertan datza atzerrikeri ori? — Euskaldunak euskaldun ez baña, españatar gerala oyuztatzean; 1839 eta 1789 garren urte aurretik ere Prantzi'ko zati eta Españi'ko erki giñala; euskera ez dala ezertarako, beaz narda, esetsi eta galdu araztea obe dala, erdera lenbaitlen nagusiaraziz gure lurretan; Españi'ko



ekanduak lenbaitlen sartu bear dirala, berexkeririk ez dedin; itz batez, gogo aldatuz, españitar bilaka alik lasterren. Ontan datza oien atzerrikeri batasuna.

119. Eta "laterri-ausle" laido ori egotz nai digutenentzat zer diozu? — Alegiko otsoarena dagitela, axuria irets nairik. Ur lasterrean axuria baño goragotik edaten eta axuriak, alaxaña! uerritu. Prantzi'k eta Españi'k, bi otsokok, Euzkadi erdibi egin eta euskaldunak "laterri-ausle"!

# X

## KARLATARREN ALDERDIA ([1])

120. Karlatarrak, buru-eredu zeintzuk auta dituzte? — V garren eta VII garren Karla, Bakaldunak dizkitzute, aiek buruzagi.

121. Alderdi orren erru betea zertan datza? — Euzkadiren eta Karla Bakaldunaren arazoa bat yotzean, bakaldun ori agintaulkira igo ezik euzko azkatasunarenak egin dula sinistuta.

---

(1) Orduko garaiari zegokionez, luze ta garratz astintzen ditu egilleak, Fuero zale omen diran alderdiok. Guk ordea, Ameriketarrok, ordoki aitz gañeko artzaiak bezela, gallurretik soa edatuki, zarkulduxerik dakuskigun alderdi oieri, bear baño geiagoko garrantzirik ez genieke eman nai. Izan ere, Alponso Karla edo Karla Alponso, Primo de Ribera edo Maura, Petain edo De Gaulle, Gil Robles edo Ibarnegarai, Prantzi-Españi'ko Agintaulkira eramanetz, zer doakio Euzkadi'ri, Euzkadi'renak ez baña atzerritarren ebazkizun eta asmakizun oetzaz? Argatixe ikolduz, kenduz edo laburtuz, emanen degu alderdien atal au. Bestalde, erro-erroan zornea, iroa ta tustoa digarkiegu, argentinatar euzko semeontzat Euzkadi, egizko Aberri, Españi-Prantzi'gandik berex-berex aitor nai ez dun Alderdia, usteltzat eta kaltekortzat bait-daukagu eta euskaldun izenik ere ez dunik artze. Egi au, ikusi ere, euskaldunak aspaldidanik garbiki ikus dutela ere ba-dakigu, eta azken aldera, Euzko Araudiaren bidez, zenbait eskubide ardiets-agian giñalarik, aien aurka nolako amorruz eta korromioz yarki ziran ikuski, ogei urte luzeotan naiko asti ukan dute euskaldunak aien yokabidea gogaltzeko eta yokabideaz gogaitzeko. Euskaldunak garai zituztelazkoan goigoian iñarros zituzten españatar ikurriñak; ez oartu ordea, betiko eortzten zituztela alderdiarenak. Luzaro gabe, azkatasun eguntirian, udaberri baten arnas beroaz aritz orriak zabaltzen diran lez, gure euzko ikurriña, batzokietan, udaletxetan, zeietan eta mendi gallurretan, Euzkadi'ko txoko banatan zabal daigunean, alberdi oien ikurrin-aztarnik ere ez da izanen.



122. Zein asmoz yeiki ziran guda ortan euskaldunak? — Lakementiarrak agintaulkira, Karla'ren ordez igo ez zitezen ain kistar onak etzirala-ta.

123. Euskaldun aien asmoa ona ez zanik ezin uka? — Asmoa eiki, agitz ona zenun asmoa, burutzeko bidea ordea, bide ori zenun txarrenetakoa.

124. Zergatik baña? — Euskaldunak, lakementiar nai zun Españi'ri guda-aupa botatzean eta egitean, guda gal zezaketen, baita lakemenkeria Españi zear ez eze, Euzkadi barna ere eda. Alaxe gerta bait-zan gerta ere. Españatarrak lakementiar legetatik eta Legarretatik malda ta aska bearrean, aien-pean geok bait-giñan eror, gure azkatasuna gal, eta arekin batera gure Batzar ta Legarrak oro. Lakemenkeriari auzoko ateak ertsi nai ta zabal zabalik etxekoak utz.

125. 1839 garren urte ortan, zer bear zuten ba egin euskaldunak? — Españatarrak, asabatar Bakalduntz sinislea bear ba'zuten, zezatela; laketiar Bakalduntza edo Yainko gabeko Erkala nai ezkero, or antola; eta batzuk bat eta besteak bestea irrika inkatan euren arteko liskarra aarraz edo guda-zelaietan suka edo zupinka erabakitzen euren esku laga.

126. Nola uren zan lenengoko karlatar guda ori? — 1839 garren urtean Dagonilla'ren 25 an, BERGARA'KO BESARKADAKIN buka zan karlatarren len guda ori, eta 1839 garrengo Urrilla'ren 25 an, ematen zan gure LEGE ZARRA'ren eriogarrizko Lege zital ura. Ixekagarriago eta lotsagarriago gerta zedin, Lege Zarraren sendogarri etzioten ba deitu? Len atal buruan ona nola zion:

"Euskal-erkietako eta Naparro'ko FUEROAK sendesten dira, *legezko bakalderri-batasunari kalterik ez lekarkien einean.*"

127. Nola ar zuten lege ori euskaldunak? — Zekarkieken ondorenik igarri gabe, uste onez ar zuten, ez guzti-guztiak baña.

128. Noiz oar ziran euskaldunak zeñen kaltegarri zitzaien Lege ori? — Batasun orren aitzakiz, legea-legearen gain, bakalagintza dei ta abar, bata bestearen ondoren zetoztela eta Gure Lege Zarra, iñausten, kentzen eta erabat amaratzen ikus zutenean; beinere ez ta gudarozketara semeak bialtzea bearturik arki ziranean batez ere, orduantxe oar zuten Lege orren zitala eta kaltea.

129. Noiz yo zan karlatar bigarren guda? — 1872 garren ur-

tean asi ta 1876 garrengo urtean amai zan, Euzkadi'ri arrunt lur yo-arazi ta.

130. Karlatar Alderdiaren alde yoka dunetik, ez du beaz, Euzkadi'k onik izan? — Euzkadi'ri orlako itxesa eta abarrakintza yaus ba'zaio; aztura ta ekandu geienak eta zindoenak gal ba'ditu; abendaren izantzarik beralenak eta erri askotatik eta berein etxetatik Euskera erauz ba'da; eskubideak oro eta erriketari so, azkatasuna ere gal ba'dugu; galtzai oek oro, karlazaletasunari zor dizkiogu egi-egitan.



# XI

## AZKEN GERTAERA NAGUSIENAK

131. 1839 garren urtean galdutako eskubideak berreskuratzea, etsi al dute euskaldunak? — Etsi beintzat ez noski, iñoz etsi ere. Eskubideak oro ezin ardiets izan ba'dituzte ere orain arteo, aldiranak bereganatzeko eskaida ta arkuntzarik txikiena ere ustia gabe iragaiten ez dizute biñipin euskaldunak utz.

132. Noiz ukan zuten atiza ori? — Bakalduntza erroitz eta erauz eta Españi'k Erkala onar zunean, 1931 garren urtetik, 1936 garren urtera anai matxinada erakori zuteno.

133. Galdutako eskubide oietako zenbait ezagut al zizkion Erkalak Euzkadi'ri? — Ezagutu, ezagutu ez baña, Euzko Araudi baten bidea ideki bai beintzat, euskalduneri ideki zien.

134. 1839 ko urte aurreko Lege Zarrakin bai al-du Araudiak zer ikusirik? — Lege aien atalik txikienetariko batzun bidea zabaltzea edo litzekela erran genezake eta ori ere zerbait izan ba, oro gal dutenentzat.

145. Noiz sendetsi zun Erkalak Araudi ori? — Azken beltzean. Erkalaren aurka barneko eta ateko arerioak zarramalka eta gal-zorian arki zanean; beste kuku batek yo zezakean, lenegunetik eskein ba'ligu; anai biurritza bera ausaz etzan erakoriren.

146. Erkala uzkaili zuten etsaiak, zutirik utz al ziguten Araudia? — Ez bei! yeiki ere eskubide oien erraz, inkur eta udigoaz soil-soillik yeiki ta yarki zitzaizkigun da; genitun ondar eta uzkiñak ere eraindu ta ezaba zizkiguten eta ametsik ere aboro ez genegin ogei urte luzeotan, euskera, oiturak, ekanduak, yolas garbiak, yayak eta euzko kutsu lezaken oro, nola suntsi, birrin eta errauts, azkandi ta etemeteak oro egiñik ditute, tai gabeko ayer esetsaldian.

147. Yainko gabeko Erkala zala ta (gorria alegia) aiekin elkartze orrek, euskaldunen yainkozaletasunari ez zegokion eran yoka zutela ta, sinistunen artean, ots txarra ta usobillo aundia zabalduxe bait da ba ludi-urrutietaraño, ortzaz zer derraidakezu? — 1º Zuriak oro ez dirala irin, ez ta gorri guztiak ere urre. 2º Yainkogabeekin, gorrikin eta erkaldarrakin asmoz, gogoz eta eritziz elkar, batu edo erizkidetu ez baña gure ta aien gañera erio ayerrez oldar zitzaizkigunen kariaz, luebaki berean, gudarikide egokitu giñala. 3º Italitar ator beltzakin, doiztar orbera nabarrakin eta aprikatar narru-beltz sinisgeekin, erauntsita, sinismena nola ekar lezaioketen ludiko erririk sinisleenari..., korapillo au iñola ere aska-eziña dala. 4º Apaizak erailaz, eundaka esetsiaz, aleunka ta mileunka kistar barraiatuaz, espetxeratuaz eta suizkilloz illaz, ez derizkigula sinismena ekartzeko erarik onena, orreik guziak yaukitzeko beste ziorik zitekela. 5º Geroak erakuts digunez, Yainko aldeko gudak ez baño, Europán indarzaleak nagusitu bearrezkoak zirala eta aste-astetik, Europa'ko Laterririk azkatasun zaleenari eta zarrenari ekitea ez zala arritzeko. 6º Aintzinxegotik idazti batean Eliz-artzaiak erakuts zigutenez, erriak aututako agintarieri lotsa bear geniela, gomutara ekarririk, matxinadan esku ez artzea eta gañera zetozkiguneri burutzean, onlegearen arauz, zuzenez ala okerrez ari izanak geran erabaki ematea, eskualdekatarreri ez baña Goiko Eliz Agintarieri zegokiela.

148. Eta orretzaz zerbait erran al dute Eliz Agintariak? — Bai yauna; garbi aski erran ere gañera. Gogo kardaba oietatik euskaldunak ibi ta lasotze arren, goi-yaupari Onaindia'tar Alberta, Erroma'ra igor zun euzko yaurgoak, matxinadatik bi bat illabetera. Prankotarrak, anai bat, Elgoibar'ko apaiz-buru, izkilloz erasan zioten, erasan ere. Zalantzaren ipitzik askok ez euki arren, oroen onerako eta biarko errankizunari so, ona ba Erroma'n egin zun galderaren eta ar zun erantzunaren berri: "Euskaldunak, eskubideak aldeztean iskilloz, ongi, bidez eta onlegez ziranetz ari? Batikano'ko baratari zan Pizardo Gotzaiak, orain Kardinal, Yainko-yakintzan irakasle diranakin eta onlege yakintsu artean, zenbait egunen barru ontsa iratio eta auteman ondoren, ona erabakitako erantzuna: "Onlegeari buruz eta arauz, ez daukatela euskaldunak ezeren erantzukizunik."

149. Araudiak zemazkion eskubideen yabe noiz egin zan Euzkadi? — Araba, Gipuzkoa ta Naparroa menpera ondoren, Bizkai'ko mugetan, italiatar *pachista*, doixtar nazik, aprikatar baltzak, españatar palanxe ta napartar karlatarrak zerauntsatela, 1936 garrengo Lastaillaren 7'an, erriak autu agintariak, Gernika'n baturik, antziña batean bezela, Aguirre'tar Yoseba Andoni, Euzkadi'ko Lendakari aukera zuten.

Ona ba Europa'ko erririk zarrenak, 32 urtedun buruzagirik gaztena, urtez abaildutako erriak, sinismenean eta itxaropenean ba'diraute, zarkultzen ez diran oargarritzat 1839 garren urte arte, Bakaldun eta Bizkai'ko Yaunak, Gernika'ko Aritzpean, euskaldunen eskubideak zainduren zituztela zin zegiten bezelaxe, eta zin ori egin ezik, aginterik eta buruperik ez bait-zuten, alaxe, inguruko mendietan eta baranoko aitz-erpiñetan gure gaztediaren iskillo dunbadaen oyartzun itunak lagun, aztura zar ori berri-berritzen zan eta eun urteko utsune baten ondoren, Araitz zarraren zubil eta adar irotuak, zauskada batean, iñarros ziran, zin berri baten aots ozena entzunik:

"Yaun-Goikoaren aurrean apalik,
Euzko lur gañean zutunik,
Asabearen gomutaz
Gernika'ko zuaitzpean
Nere agindua ongi betetzea,
Zin Dagit."

150. Agirre'tar Yoseba Andoni, Yaun lendakari orri arean, batak eta besteak erratekoak eta merratekoak yauki dizkiote ba? — Egia nozki, diozuna, gorrotoak eraginda irain dutenak kistartasunik ez dute ager, ordea, eta uste onez dabiltzanak bear lukete Agirre Yauna obetogo ezagut.

Ona berorretzaz zer dion karlatar eta kistar on idazlari dan Arrese'tar Txomin'ek. Onena da "Zugan atseden dezaketeno" Agustin Donearen bizitza. Pranko ber-berak, Primo de Ribera'tar Yoseba Andoni'ri buruz eginbearrik zaillena eman zion, aide bait-zun ba emazte aldetik. Bere "Euskalerrian Legarrak (Biltzarrak) eta bigarren Erkala", izenburu idaztian auxe dio: "Bilbao'n yayo zan Lekube ta Agirre'tar Yoseba Andoni, eta 28 urteko da orain (1931 g. u.) Amazazpi urte ezkeroztik, aitazurtz, biziak lazki irakats zion. Gizonki ordea yoka da,

len-seme danez, sendiko arremaneri eutsi ez ezen, aurrera eraman ere eraman ditu.

Deusto'ko Ikastetxean Zuzena ikasi ta ikasketak ederki buka zitun. Zuritx, Priburgo, Munitx, eta Lausana'rañoko yoan-etorri maizetan osotu. 23 urteko zanetik bere etxeko olaren aolkulari zan. (Sendi-sari, irabaz-banaketa, langille-zainketa, eta beste langillen aldeko kistar eginbear anitx, itzez ez ezik egintzaz ere egiñik ditu, erran baño egin obe dala ta), Erriketarako gazte egoki eta auta, Kistar Ikasbidean irakasle, Zuzentzan yakintsu, itz errex, eta latari zaloi, zindoenetako oituraen yabe, tenkor eta aki eziña, beta oneko eta egiti, Yainkoa maite dizu oroen gain eta Euskalerria leen-leen".

Beste atal batean auxe dio: "Euzko sendirik leñargienetako seme zarrena, Agirre'k azibide ona eta bete-betea artu du, Orduña'ko Yosu-lagunen Ikastetxean eta baita Deusto'ko Yosu-lagunen Ikastetxe Nagusian ere. Atzerri ibillaldietan ikaskizunak agolla, gaur Malaga'ko gotzai dan Herrera'tar Gotzon'ek asma zun "Kistautasuņaren Aldeko Edatzalle Biltzarrean, bere yakintza eta edatzalle sua ganora eta eskudantza, ongi ager zitun." Ona ba karlatar baten iritzia.

Bere itz eta idatzietatik ere idok dezakegu gizon onen atun eta gizabidea.

1931, garrengo urtean, ona zer zion Españi'ko Lege-Batzar Etxean: "Ona ba Yaurgo-sein yauna: Egiti uts naiz eta zein alderditan izen emanik naizen aitor bear. Arana Goiri'tar Sabin'ek irasitako Euzko Abertzaleen Alderdian lerrotua nauzute. Euzko Abertzaleen Alderdiak, bi itzeko goiburua aldezten du: ots, "Yaun-Goikoa eta Lege Zarra".

Yainkoa aitortzean, siñisle gerala garbi agerri da eta ezkertar eta eskuitar berriketa utsezko zirriborro nastuan, gure yokabide ta elburua garbi-garbia da; siniste zindo eta bete-betea, gizonki ari diranen sinistea; ez ba atso lilluratuen ameskeria.

Eskuitar-ezkertar itz-mirri orri buruz ona dioguna: Ala ta aginteak oro, eskubildu nai dituztenen alde yoanik, erri-erriketaren aurrerapenak ez onartzea ba'da eskuindar izatea, gu ezkertar gaituzu; bakoitza bere zuinetan eta bidetan yoan orde, Erri-agintaritza eta Eleiz agintaritza bat-bera dirala aitortzea ba'da eskuitar izatea, gu ordun ezkertar giñezke.

Irulez, sendiaren aitzi, sinisten ditugun Eliz-egien aurka yoatea ba'da txorakerizko ezkertar itz orrek diona, gu eskuitar gaituzu; ona egia.

Bigarren itzaz, Lege Zarratzaz, ona zer dion gure Alderdiak: (Buruz ez aritzeko irakur eginko dizutet) "Iñoiz baño geiago (dio ni nagoan Alderdiak, agerri-agerrian eta agintarien bidez), iñoiz baño garbiago auxe ager arazi ta yakin-arazi nai luke Euzko Abertzale Alderdiak: Erriketari buruz, Euzkadi azke-azke ta bere buruyabe ikustea dala gure xede."

Bartzelona'ko irratizkiñatik, 1938 garren Lotazillaren 21 an ona zer zion: "Beti garbiki mintza naiz, Aurreneko egun aietako odolkeri garratz aien errua, ez nioke erriari egotziko.

Urrutixegoko sorterroa arki genezaioke, erriaren eskubideeri uko egiñik, alegia, atzerapen-zantzu zan gotorkerietan tenkor zirauten bizkar egotziren genuke. Ala dio erriak berak beintzat. Guztion onerako, irabazbide aundieri, mozkin batzuk kentzea, obe ez al zan, Elizak erretzen aritzea baño? Lenakin, asmatu egiten da; bigarrenaz gerendu eta etekiñik gabe gañera. Elizak eta sinismenak ez baña Kisto izpidegaitzean yarri dutenak dizute erru guztia, Yainkoak gizonen erizkizun utzitako aburuetan, gogoen gain duten ezkubidez erabaki emanik. Gizonen erausketan yarritako Uzkurtz gaixoa! Gauzok nola estal oi zizkizuten! Irratizkin ontatik, Bartzelona ontatik, Euzko Yaurgo'ko Agintari-buru nauzuten onek, Yainkoak sinistun egin naulako eta il arteo ala iraun araz nazala eskatuz, Goikoari esker onik emanez eta berremanez, Batikano'ko Aita guren agurgarriari agurrik beroena eta gurgarriena igortzea zillegi bekit, bere itzaz eta egitez, gizakien eskubideen alde dagin onagaitik, indarzale sinisge eta odolzaleak, Yainkoa'ren eta gizakien aurka ari duten gorrotozko burruka ontan. Lurbira osoko gizaki onbera-zaaleak ere, batera datozkit naski, aldarri eta eiagora ontan.

Argi ta garbi, biotzean itzalik gabe, emendik mintza gintezke euskaldunak. Eta menpean oinpeturik, zauzkatelako, nere aldarri au ortik ezin iraitz eta emendik yaurtia onartzen duzuten euskaldunak! zueri ere biotzez digortzuet agur au.

Itsuski, zakarki, garratzki irain gaituzte; laidoz bete gaituzte, etxeak erraunts dizkigute, Gernika kiskali, eta mardaillaz eta itz beltzaz teyu nai izan gaituzte, aleunka ta aleunka aur ta emazteki erail dituzte. Beste aldezgairik ez dute. Ala ere,

ona zer diozuedan: Asper eta gorroto biotzean daukanari, ondiko Yainko-aitziñean diot, nik ez daukat; zuek ere alaxe izatea nai nuke. Danon arte, danon oputzaz, bear dugu gure erria yaso. Gure biotzetako egigo aztarnak ba'diraute ordea, uren eziñen dugu. Zuzutsari bide eman. Orain ere dantzuiguzute; len bezela entzun ere gero. Agerbide aski emanik diguzute, lekari, nekaldi ta odolaren agerbideak izan ere. Burnizko batasun atxiki. Biotzak estu eta iguriki; atsaro; egonarririk ez gal; anaiak elkartu-ta, etxeak berreraikita, bate-batera bide dagigun eguna ba-dator, erria yasoz eta antziñako yasoiñetan, gure aundítasuna berreraikiko dugun eretia."

Auxe da ta orrelaxe oldozten du Agirre Yaunak. Auxe da euskaldunen Lendakari, beti eta nunai egiti; iñoren bildurrik ez; aren izakeraren izantza bat da egiti izatea eta egin ere sinisten dun eran yardutea.

151. Araba, Gipuzkoa, Bizkai ta Naparroa'tzaz, yakingarri ainitz entzunik dizut; ludiak edestia dunetik baño urte sail luze bat aintzindik (amabost milla bai), bere buru-yabe eta azkatasun osoan, nola bizi izan diran euskaldunak 1839 garren urterano. Beste iru aizpatzaz, Lapurdi, Xubero eta Benapar Laterrietzaz ez didazu ordea ezertxo ere aipa? — Aitzina yoan baño len, okertxo bat zuzen nai nizuke, iru Laterri orde, bi dirala, alegia, egokigo deritzat.

152. — Zer dala ta ba? — Zuk aipa duzun Benaparroa, Naparroa beraren seigarren auzo-erkia besterik ez bait da. Kistar omen zan Pernando'k marroz, guzurraz eta indarraz, Naparroa artu ta mendera zunean, Naparroa'ko auzo-erki ori Prantziratu zan Naparroa'ko bakaldun-menpeko yarrai bait-zun, Españi'ko atzaperretatik itzuri-ta.

153. Soizu! sei dira beaz Euzko Laterriak? — Ongi diozu, sei dira; Euzko Laterriak eta Prantzi'k eta Españik, sei Laterriok bi zatitan banan eta erdibi zituztenez, Laterri bat, Naparroa, batzindu ta erdikindua utz ziguten.

154. Noiz gal zuten Laterriok buruyabetza ta azkatasuna? — 1789 garren urteko Dagonilla'ren 4'an Prantzi'ko matxinadakoan. Matxinzaleok, Prantzi'ri Legedi bat emateko, Batzar Nagusiak egin zituzten. Batzar oietako batean, Aide-Nagusietako bik, Noailles eta D'Aigillon'ek eskatuta, bakarkako eta guztien eskubide berexiak eta gallaldiak oro erabat eta



zearo ageltzea eta eraintzea asmatu zuten. Aien artean, baita Euzko Biltzarrak bialdutako ordezkari ziran Garat anaiak ere, Lege, Zarraren aurkako eskubiderik Batzarrangandik etzutela yakiñik ere. Gau artako batzarkide guztien erotasunaz lilluratu ta zarbelduta, ordezkari bakar zitezkenik aantzita, Euzko Laterrien biziaz erabakirik artzerik etzutela atzenduxe, danakin batera lege eriogarri ori sendetsi zuten, ondikoz!

115. Nola zion Lege orrek? — "Banaka batzun eskubideen orde, Erki guzientzat, Aberri-Lege bat, danantzat azkatasun berdiña, obea dala yakiñik eta Aginterriaren on eta onurari begiratze arren, danok batera bizitzeko eta yarduteko, eskubide oien oparia egitea bearrezko dala iritzirik, Prantzitarrak oro, berberdiñak ditzaten, gibel-biderik gabe, bakotxaren eskualde, mugarri, uri eta giza-biltzar guzien berexgarri litezken eskubideak oro, naiz txindi naiz beste edotarikoak, zearo ezabaturik geliditzen dirala aitortzen dugu."

Azkatasuna zekarkiela ta, baztar guztiak oyuz eta iskirituz sorgortzear zeuzkatenok ber-berak, lege txatxar onekin erauzi egin zioten azkatasuna ludiko erri zaarrenari.

156. Bersalles'ko Batzarrak eman zun Lege kaltegarri au, ixillik onar al zuten euskaldunak? — Etzazu erran orrelakorik. Lapurdi'ko Udalak oro (32 guzitara), eta Ustaritz'ko Biltzarrak, lege ertun da esteyagarri orren berri ar zutenean, gizon zintzo ta zugur aiek oro, azkatasun-maitale bezain iñorenaren begirale kirmenenekok, irakur ala, barrenki samiñak yorik, arri ta zur geldotu eta biotz eragiñik. Erri Batzar orri berebiziko akar gorri eta erantzukia igor zioten, baita Euzko Biltzar-ordezkari yoan ziran Garat anaieri ere euntalako ateleka.

157. Bersalles'ko Batzarrak entzun al zun Euzko Batzarraren eskabidea? — Aldekorik ere, oraindik are aundigoko gaitzur bat buru gañera zitzaien; Euzko Laterriok, Bearne'ko auzo eskualdekin bat egin bearra; Erki altsu baten pean, erri txiki ta beartsugoko baten suntsi bearra.

158. Zer egin zuten ba euskaldunak, galtzori ori sayesteko? — Aintzinxegotik eta aurtemin berexka zebiltzanak, galtzori berak eta ersturakide izateak, batu ta elkaru egin zitun, eta iru Euzko Laterriok, batera yotzen alegindu ziran. Ortarako, bate-batera, 1789 garren urteko Azillaren 18'an, eskabide bat zuzendu zioten Batzarrari, illurrengo eskabidea, edestiaren lañopean ostenduri-

ko garaietatik egiten zetozten batzarretatik azkenengo erabakia.

159. Nola zan eskabide ori? — Ona: "Lapurdi'k berak bakarrik, erki bat egin dezan, da gure itxaro ta xede osoa.

Zuek ordea onartzen ez ba'duzute, eziña litekelako, Xubero'kin eta Benaparroa'kin obeki gentozke bate-batera."

160. Zer iardets zioten Batzarrekoak? — Zuzenez gonburuzko galdera oni, iardetsi ere etzioten egin. Garat anaiek ordea, zuzentzerik etzuken lengo utsun da errua zuri bearrez, zintzo ta gizonki yoka zuten oraingo ontan.

161. Batzar ori nola izan zan zerbait erran al zenezake? — Garat anaiak, erabaki aren aurka, bipilki yeiki ziran. Euzko Laterriak ez dezaketela Bearne'kin batzarrik egin, gogor ta egoki ager arazten diote, ez bait zuten mintzaira berdiña, eta ezin alkar adi, ba noski. Oloron'go Gotzaiak, apaizen aldetik Xubero'ko Batzarraren ordezkari omen zana, ona zer erantzun zien: "Mintzairak egitan ez berdiñak dira, baña bata bestearena ikas liteke, aldebateko aurrak bastera igorrita. Nik ere ez dakit Euzkerarik, baña erri guztiakin ulertzen naiz. Ludi guztiak ba-dizu mintzaira bat-bera, maitasunarena" Albait lasterren sendestea izan zan Batzarraren xederik biziena.

Dagonilla'ren 4'an erail zuten erriari, Ilbeltzeko 12 ontan yo zizkioten eortz-dandak, (Fagoaga'tar Isidor Yaunak auxe dio, *Garat'tar Txomin* idazti irakurgarrian Ekin'ek argitalduan) Noiz danik zetorkion azkatasuna, asma eziña zitzaion erriari, yareitasuna omen zekarkian erriak, joputza leporatu Alaxaña!



# XII

## URENBURUTZAT AMERIKETARRON ERITZIA

"Ameriketa'n Euzko arazoa, egi garbi bat da, danak ontzat damaten egia." Landaburu'tar Pantzeska Xabier'en "Euskalerriaren arazoa'n."

Argentina'n, Euzkadi berri txiki bat sor zaiola ta, Euzkadi Ama Zarrari, emengo seme gaztenen gardi ta aburupenak yakitea, atsegingarri ta biziki adoregarri dakiokela uste osoa baitdugu, àsmo ontan, argentinatar euskaldun semeen eritziekin eman nai genioke amaia lurraso atoskor ontan ondu dan lantxo oni.

Ontarako, argentinatar euskaldun yator batengana yo dugu, legegizona, yakintsua, emengo edaso ikusgarriak lenengokoz burnariz ersten eta esitzen asi ziran euskaldun yator aien oñordeko, aitasoak abelgintzan idekitzen asitako arloa, goren-mallara yasodun abeltzalea; beaz, urrunak gauzari damaien aldaketa lekat, gure baserritar yatorren antzkide betegiña Agerre ta Garziarena'tar Yoseba Miren Yauna. Aurrekoak iru gizaldi bai onera yinik onen aburua, beste guztien aranots eta gogaikide liteken ustetan, ona ba argentinatar euzkatarron oldozkuna:

"Auñaz aindiko Euzkadi'ri eskubideak oro Prantzi'k uka zizkionean, barne-agintaritzako buztarria leporatuz eta eragozpen neketsuaz bertoko semeak sorta; eta onuzko Euzkadi'ri ezin okerrago deritzaion" Lege Zarraren ezabaketa egin zitzaionean, asi zan Ameriketa alderuntz euzko erralda kopurutsua Rio de la Plata'ra baitik bait, XIX garren eunki barnean.

Oroitzik gabeko garaietatik, Euskalerriak ukan zun buruyabetza eta azkatasuna gal berri-berritan etorri ere etor ziran beaz gure asabak Ameriketa'ra eta aldi bateko atzeen buztarripeak itsasten dun kutsu kaltekor aztarnik gabe gañera, etorri ere.

Euskaldun yatorrak ziran eiki, bete-betekoak. Aien askasi geranotan ba, ez da arritzeko endaren, ayurriaren, izakeraren eta ayeraren bestelakotasun eta kerak nabarmenkiro yarauntsiz agertzea eta bidez-bidez aberri lapurkarienganako atxikitasun eta erkidegorik ez izatea.

Egiok, xeetasun eta argibiderik aboro bear lukete baña, ez luzatze arren, eskuxortatuta dakazkigu eta gure egikera ta ekantza aratz eta zeatza yakin eta oar nai dunak aski du naski errandakoa.

Eragin ere, beste zenbait eragipenek daragiokete argentinatar euskalduneri, bañan bakarka eta gizonik gizon. Ikasketak edo nor beraren aogoxoak, biotzaldu ta ayertuz, batzuk eta besteok, españatar-yakintzari lotuak edo prantzitar edo englandar izakerari atxikiak suma giñezke, baña abendaren yaiduraz yatorriaren ariaz, lagunarte-erkidegoko ayoaz, ta asabitzaz euzkotar soil-soillik gaituzute.

Gure sortzezko amerikatar edo argentinatar abertzaletasuna bertzalde, beste ertz batetik so ba'dagigu, gizaki gaitasun lerroan ta einean, guretzat guzien gain eta guzien aintzin, EUSKALERRIA. Xuxpergarri eta indargarri lezaiokenik oro, ontzat daukagu; bakarkako naiz multzoko aren aurka ta kaltetan ba'da, edotariko gizaki indarra uka narda ta ezetsi egiten dugu. Euskalerria malda, yaregin ta gaizka egin nai dugu len-lenik; Euskalerri danez, aren iraupidea alegia erkidego baten ezaugarriakin, gizadi baten berextasunakin, bere-bere izakerakin, ludiak daraman aurrerapidean urratskide.

Bide ortan Euskalerriak arki ditzazken eragozpenak oro, aren lengotasun, iraupen, sinismenaren eta biziaren aurkako zernai, erdokizaleak, batkerizaleak, españatar naiz prantzitar aginterrikeri-zaleak; eskuin naiz ezkertar indarzaleak, paszitarrak, nazitarrak, erkidezaleak edo dandanendarrak diranak dirala, gu beti beti, etsai ergarri ta amorakaitz izanen gaituzte. Guziori dezakegun suar, kemen ta bipiltasun oroz, gure xain, barneguneko, *zirritu ta brintzaleneko euzko zaletasuna* aurkezturen diegu.

Iragan eunki erdi aldera, Euskalerria'ren bizia lozorro galgarrian eta izigarrian zetzanean eta egiari buruz, naste-borraste bizian, eta biotzaldietarako euskaldun semeak oro, sorayo gogorrean (¡ala bearrez!), euzko abertzale egiak egin zun agerpena. Ark ekarri zun, gure erri zarra eriotz baitin eta aparabear batetik yarein da malda zun euzko-berpizte zoragarria. Argentinatar euskaldunok, nolako ederrespen eta arraiziaz ar genitun aberri-egi sorberriak eta zenbaterañoko maitasuna ar genion aien irasleari, Arana Goiri'tar Sabin'i, gorago yalgi ditugunetik eratzi besterik ez dago.

Suar eta gogo beroz bai guk ar "Yaun-goikoa eta Lagi Zarra" goiburuz asi zun zabalkundea!

Oar bat dagokigu emen. Sortzez ameriketar, gure sortaberriari zor gatzaizkio. Legez ere ameriketar, egi utsari ba'gagozkio, ezin izan ba euzko erri-tar eta erkide. Au gogoan ta buruan, uler bear da ba gure euzko-abertzaletasuna. Abertzaletasun ori dala ta, alegia, ezin giñezke alerti edo erriketa gaietan buruzbelarri eman, ez ta Euzko Alderdian bazkidetu ere, edo Euzkadi'n diran edo litezken beste edozein ostantzeko bazkintza berdiñetan edo antzekotan ere izena eman. Orrek ordea gure alerti, erriketa aburuak eta aberri-egiak sinistea eta zabal-zabal agertzea eta barraiatzea ez digu gal-arazten. Ontara ezkero, yakiña ba zeri buruz aurka egon giñezken:

1º Euzko-eskubideak eta lortzeko bideak, ikasbidez edo yokabidez uka lezaizkiguken edozein burubide eta yaurbidearen aitzi; LENIK.

2º Uka ez arren, luzapide billa dabiltzanen eta erabakirik ar nai ez dutenen aurrez aurre, BIGARREN.

3º Elbidez eta xedez, zenbait antolaketa eta erdi-merdiko alkarketa aski zaienen bekoz-beko, IRUGARREN.

Irulez, ona nortsukin gauden eskuz-esku:

a) Dagoan ozke ta egoeratik yarei bearrez yardukitzen diranakin, 20 urte luzeotan or bait dugu ba españatar zapatzallea, erabateko indarkeri-zale, anker amorruzko atsegiñez eta asazkaz euzko kutsudun zernairen eraile mutiri, setatsu ta mokorra; naiz ta laugarren prantzi-erkala, aurrekoen edura, erdokizale, erriresle, eta batkari bait dugu au ere, euzko eskubideeri buruz.

b) Axaleko eskubide zenbaiten aldezle diran elkarteen buruzki, diardutenekin; azkenean, Euzko Aberri-Yabetasuna uka egiten bait-dute. Euzko-zaletasuna, gure gardiz, ez da erkizaletasuna, ez ta erki-elkartea ere, ez ta araudi-bidea ere naiz Españi aldetik naiz Prantzi aldetik. Aberria du leen-leenik

barne mami, euzko Abenderria eta Euzko Abenderritzat ezagutzekotan, oso-osotara, Euzko Laterri bat ere izan bear, arrunt bere buru yabe, eta atzerri Laterri guztietatik berex-berex, atzerritaren aginpidetik azke-azke.

Beste aberriekin artu-emanik eta zer ikusirik gabe bizi bear dugunik ez du onek erran nai, alderantziz, Aberri guztiekin eta Europa osoko eta ludi guztiko Laterriekin zer-ikus, asiorrazi eta beargai aundiagoan baño, anai arteko eta kistar arteko elkar-laguntze ta gizabide bete-betean gaurko yoberaen arabera.

Orlaxe sor litezke Europa guztiko edo Ludi osoko gizadien artean bear bezelako erri-elkarte onurakor eta ugalkorrak, beti beti aurre-aurretik baña erri bakoitzaren yabetasun eta azkatasuna buru-buru dala; yabetasunak eta azkatasunak giza-biziaren antza bait-du, euki ala gal, egin liteke, erdibana eta mikuinka ordea iñola ere ez, ezin erabil.

Beste gauzarik litzake, arean gaurko esku-gogorkeri ilgarripean bizi orde, aloxoxegoko egoera baten aukeratzea, ontan tinkaturik, geroragoko ontarteak eta obariak ardiets asmoz. Gaur euskaldunak, yakiñen gañean daudenez ordea, eta eskubideak lor bearrezko burrukan atzarri ta goaita, txikikeritan eta ao-goxokeritan aurrerantzean atzipeturen ez dituztela aisa oar giñezke; izan ere, Euzkadi'ren izterbegiengandik zenbat bider ez dugu entzun onako errankizun au: Yainkoak yakin garaietako edestia zala, Euzkadi azkatu orren edestia eta urruntasun orrek, urruntasun guztiak legetxe, ba-zizun indartxo aputz eta angu bat, egi orren ertz zorrotzak kamustutzeko; gaurko gazteak ordea, odolarte garratzean bada ere, bizi-bizitan ikus dute egi orren egia.

Orain, aldiaren uartzetan eraindua eta lurrindua ez baña, biotz taupadatan, diz-diz ikus dugun gaur-gaurko egia dugu Euzkadi'ren buruyabetza.

Egi orren iñazi dirdaitsuak eta estai arrigarriak ginga-gingatik, Aberri guztia leiñuruz argitan euki ez dezaten, ate ta leyo ta zuloak oro, indarrez ertsiki bozatu ta estalpetzen lanak dabilzkite, dagoneko ordea, arrail da irriñarterik, txikiena aski izanen da, tanpez Aberri guztia argitan blei ikusteko. Elburua iristeko auxe dugu bulkagairik azkarrena.

Len genion obari oiekin, bestenaz, alki litezke zenbaitzuk



eta epeltxoak sorgortu azkatasun bidean, bide au bakar-bakarrik dugularik elburua irixteko ayorik eta eragingarririk biziena, eta yakiña, gaitzur ori astantzea ere obe noski. Auxe ba-da ba ta, Amerika gazte au osa duten gizadi bixiki eta askotan buruzkako endaen artean, enura gabe, gureak bakarrik, zarrenak, gurenenak, nabarmenenak, euzkotarronak soilsoillik, bere Aberri-ikurriña legez ezin zibuka lezake, enparauengandik berexgarri. Ez españatar, ez pantzetar, gauzak gaur dauden araura, euskaldunok, oietakoren batengana yo bear noraezean, gure yatorkirik ez ba'genu bezela.

Lagunarte oietarako ez gutxi ere, ez gaitu ilduratzen eta gutxiesten bidegabekeri onek, euskaldunok! eta gure ureneneko eta argieneko yatorkiari, iñola ere ez dagokio onelako laidoa.

Nola ba onar? Ez ba arritu geure-geurearen ezagutza galdetzen ba'dugu, gure asabaen leñargi-agiriaren ezagutza, ez bait-gera ba bort, endekatu, erritume, ala sasiko; ez ogipeko, ez nerabe, ez morroitzako, ez ta ere yoputz; ludiak dizun errirík zaarrenen seme yator baizik, erririk itzalgarrienaren oñorde, gizaki urgoiti, ludian arki liteken askalderririk zaarrenaren, gurenenaren, azkatuenaren ondare garbal.

Ludiaren aitzinean gure nare au aldarrikatzean, asabeeri zor diogun esker ona ordaintzen dugula ziur gera. Bizian, gerana oro aieri zor diogu eta aitzina ere ala izatekotan, ondorengoak ere ala ikus dezaten eta danan aurrean ere ala gaitezen eragoteak, aienganako sorterroaganako eta gure buruenganako zindotasuna darakusgu.

Asieran genekazkin Landaburu Yauna'ren itzen araura, Ameriketa'n ontzat daukagu "eusko-arazoa"; gure asabak oro, gure erriak, aren onoimen arrigarriak, aren zindotasunak, gizabideak, lanzaletasunak, sinismenak, kistartasunak, soin-gogo-osasunak, danak batera, "Euzko Arazoari" yaso dioten eraikintzari, guk ere, bizi berri bat, ugalkorragoko bat eskein, txerta, ta sustraitu nai diogu, gure erri zarrari aurrerapen berri bat ekintzatan eta bizibiderako, arnas berri bat lemaioken indarra, AZKATASUNA!

Onek deragigu, orretxen urduriak eta armiñak garabiltzi. Eta garaikoenetako arlo ontan, euzkotar guzien ayo, arnas, bulka, urgaizgoa ta laguntza ditxarogu, Napartarrena, benapartarrena, xuberotarrena, arabatarrena, lapurditarrena, giputzena, bizkai-

tarrena, ez eze, baita Ameriketa'ko Euzkadi berri ontako euskaldunon lauzkintza ere bearrik zaigu.

Euskaldun anaiak! Aberri batek lot gaitu, Aberri batek lot oi dun esteka ta nekabiurkai etenkaitzaz; zuekin anai geran argentinatar euskaldunok, zuen arnasa daskaizugu, zuen egiñala, zuen azkua, biotzberotasuna eta batasuna, itu au danon ekiñaz erdiets dezagun: ABERRIA TA AZKATASUNA.

URENA



# IZTEGITXOA

## LABURPENAK

AN. — Haut Navarrais: Alto Nabarro.
B. — Biscayen: Bizkaino.
BN. — Bas Navarrais: Bajo Nabarro.
G. — Guipuzcoan: Guipuzkoano.
L. — Labourdin: Laburdino.
R. — Roncalais: Roncalés.
S. — Souletin: Suletino.

*Ada (BN. L. S.),* puissance; poder; pouvoir.

*Aarai (L),* chant d'allégresse; canto de alegría.

*Aharra (BN. L. S.),* obstination, querelle, tumulte (B. arra, alboroto, porfía, riña).

*Aarragoaldi, Arragoaldi (de arra-go-aldi),* epreuve; prueba; situación crítica.

*Abazka, Abazkatu (BN. AN.),* amonceler (des fougères); amontonar (helechos, etc.), coleccionar.

*Abagune (B),* conjoncture, occasion propice, intervalle; ocasión, momento de quietud.

*Abaildu (G. B.),* s'exténuer de fatigue, se plier sous le poids des fruits (les arbres); abatirse de cansancio, id. las ramas bajo el peso de la fruta.

*Abarrakintza (BN. G. L. R.),* de abarrakitu, abarrikatu; briser, ravager; destrozar.

*Abatar (neolg.),* traditionnel; tradicional.

*Abatzartu (neolg.),* hériter; heredar (Abatza), heritage; herencia.

*Aberaski (g),* richesses, richement; riquezas, ricamente.

*Aboro (BN. S.),* davantage, más.

*Adei (BN.),* déférence, deferencia.

*Adiguri (B.),* service, très grande attention; obsequio, atención suma.
*Adigorri (AN.),* caractère, carácter.
*Adimentiar (neolg.),* rationaliste, racionalista.
*Adoba (B. G. L. S.),* morceau a repiécer, pretexte; remiendo, disimulo, pretexto, disimular.
*Ageldu (neolg.),* effacer; borrar.
*Agitu (AN. S.),* advenir, arriver; acontecer.
*Agitz (AN. BN.),* très, vigoureux; mucho, muy, vigoroso.
*Agoillatu (BN. L. S.),* ouiller, remplir un tonneau; rehenchir, rellenar las mermas.
*Aiduru (BN. S.),* empressé, celui qui attend; solícito, en espera.
*Aieru (L.),* supposition, conjecture; conjetura; clignement d'oeil, guiño de ojo.
*Aiko (AN.),* arbre généalogique, parenté; a. g., parentesco.
*Aio (S.),* désir, attente; deseo, espera; Aiotua (B.), acomodado, propio: adapté.
*Aisa (BN. S. L.),* facilement.
*Aitzinean (BN. L. S.),* aurrean.
*Aitzurdin (S.),* atsurdin, marbre, mármol.
*Aiurri (AN. G.),* caractère.
*Aizu (BN. L. S.),* licite; lícito; avoir la permission; tener permiso.
*Akar (AN. BN.),* rixe, réprimande; riña, reprimenda.
*Akitu (L. AN.),* se fatiguer, s'accabler; afanarse, agotarse.
*Alazo (B.),* commode; Alazoko, proporcionado; a propos.
*Albiraka, albiraketa (AN. G.),* faire des cabrioles, jeu des barres, aller et venir; dar volteretas, jugar al marro, idas y venidas.
*Aldegai (neolg.),* thème, element de composition; tema.
*Aldaxka, aldaska (BN. G. B. L.),* scion, bouture; retoño, vástago que se trasplanta; aldaskatu.
*Alerti (neolg.) (al-erti),* l'art du pouvoir ou de la politique; arte del poder o de la política.
*Alki, Alki-izan (AN. B. G. L.),* se conformer, conformarse; chaise, silla.
*Aloso, aloro, alguzi,* pleins pouvoir; plenipotencia (Neolg.).
*Alote (neolg.), (al-ote?),* doute, duda.
*Alotzaldi, alotza (G.),* ignorance, idiot; ignorancia, idiota.



*Aloxo, aloxuan (G.),* débilement; débilmente.
*Alta (BN. L. S.),* donc, pues; (alta, alda; changer, cambiar).
*Aldarrikatu (B.),* annoncer, crier; proclamer; anunciar, proclamar, gritar.
*Amarakor, amaratu (BN.),* se désagréger (la terre); descomponerse la tierra, desmoronarse.
*Amarru (B. AN. L. G.),* astuce, malice; astucia (amarrugabe, ingénu, ingenuo).
*Amitu, amikatu (L.),* s'exténuer; extenuarse.
*Amorakaitz (B. G. L. BN.),* qui ne céde pas; de amor eman, céder; amoratu, faire céder; hacer ceder.
*Anartea (AN. L.),* tandis que, pendant; entre tanto, intermedio.
*Andregoi (neolg.),* Erregiña; reine, reina.
*Angu (B.),* mou, fofo.
*Antxit, antxitu (B. G.),* atteindre, suivre; alcanzar, seguir, moucher une bougie; despavilar una vela.
*Antziñate (B. G.),* antiquité; antigüedad.
*Aogoxo (c),* chose qui adoucit la bouche; gusto.
*Aogozatu (AN.),* mâcher, mastiquer, insaliver; masticar, insalivar.
*Aolku (BN.),* avis, conseil; consejo.
*Apara, aparau (B.),* atteindre le but, réussir; acertar, conseguir; (apara-bearra) destin.
*Apeta (B.),* caprice, zèle, intention; capricho, intención.
*Apeu (S.),* réclame, reclamo; Apeukoz, a reclamo.
*Apika, apike (G. R.),* peut-être; tal vez.
*Aputz, apotz (B.),* mou, spongieux; fofo, esponjoso.
*Aranots (S.),* écho prolongé; aranotsale, bruit de l'écho, ruido del eco.
*Arbuigarri, Arbuiatu (BN. L. S.),* méprisable, mépriser; despreciable, despreciar.
*Aratza (S. P.),* araztasun; beau, brillant, purete; limpio, brillante, pureza.
*Araudi (c),* statut; estatuto.
*Ardura (BN.),* fréquenment; con frecuencia; (ardura) (c), soin; cuidado.
*Argidotar, argidun (c),* éclairé, intélligent; ilustre.
*Argoi (G.),* arrogant, fier; arrogante, altanero.

*Aria (BN. B. G.)*, Sc., race, raza; trato, motivo, relation, motif; occupation, carácter.
*Ariel (B.)*, droit d'octroi, impôt; impuesto, arbitrio, sisa.
*Arildu (B. G. BN.)*, dévider, pelotonner du fil; devanar, hacer ovillos.
*Ario (AN.)*, humeur, disposition; talante, inclinación.
*Arkintza (B.)*, crédit; de arkin, crédito; arkindun, créancier; acreedor.
*Ardietsi, erdietsi (AN. BN. B. C.), jarderitsi, jaditsi, iritsi (lortu, eskuratu)*, atteindre, obtener, conseguir.
*Armiña (B.)*, armindu, irritation, s'inquiéter; apuro, inquietud.
*Armo, armoka (B.)*, pic, point de rocher; picacho; armola, pedregal en el centro de un terreno.
*Artezkari (B.)*, directeur; director.
*Artha (BN. L. S.)*, soin, diligence; éceuil, récif; cuidado, diligencia, escollo, arrecife.
*Artalan (BN. R.)*, traveaux de prestation par ex. pour faire un chemin; trabajos vecinales.
*Artze (c)*, créance; crédito, mérite; merecimiento.
*Arrail, Arraildura (AN. L. S.)*, éclat de bois ou épine qui s'enfonce dans la chaire; fente, déchirement; astilla, espina, hendidura, desgarramiento.
*Arrandi (AN. G.)*, bravade, fanfaronnade; bravata, ostentación (arrandiatu) braver, bravatear, fanfarronear.
*Arrankura (gura), (AN. S.)*, soin, remords, inquiétude; remordimiento, cuidado.
*Arraizia (AN.)*, amabilité, joie; júbilo.
*Arrakasta (BN. L. S.)*, recherche, succés, vogue; rebusca, éxito boga.
*Arriabar (AN. B. G.)*, grêle nuisible, desgrace; pedrisco, infortunio.
*Arroin (oñarri), (B. L. G.)*, assise, pierre fondamentale; piedra fundamental, basamento.
*Arrolatu (AN.)*, camper; campar, tomar posiciones.
*Arronta, arrunta (AN. BN. L. S.)*, commun, ordinaire; totalement; com6n, ordinario, totalmente.
*Atanda, atandatu (S.)*, se situer; situación, situarse.
*Ataza (B.)*, occupation, zèle, ardeur; ocupación, empeño.
*Atela, ateleka (G.)*, querelle, remords; riña remordimiento.



*Aterontzian (G.)* hors de, excepté; fuera de, excepto.
*Atiza (mugona)*, occasion, opportunité.
*Atoskor (G.)*, (de atotsi, accueillir, acoger), accueillant, acogedor.
*Atuna (AN. S.)*, habitude, experience; manière d'agir; costumbre, conducta.
*Atsal (D)*, convoitise; anhelo.
*Atsarre (BN. L. S.)*, commencement; comienzo.
*Atze (BN. L. S.)*, étranger, personne étrangère; extranjero, persona extranjera (atzerri) país extranjero.
*Atzindu (neolg.)*, effacer; borrar.
*Atzipatu, atzipetu (BN. B.)*, voler; robar; (atzipe, fraude, engaño).
*Atxilo, atxilotu, atzitu (BN. G. B.)*, prendre saisir; apresar, prender.
*Audia (B. arc.)*, autorité, autoridad.
*Aunatu (AN. G.)*, s'éreinter, se fatiguer; desfallecer.
*Aundikalduntza (neolg.)*, féodalité, aristocrace; feudalismo (Aundikala).
*Aupa, aupaka (B. G.)*, (Upaka S.), provocation, défi; desafío.
*Auriko (BN.)*, obstacle, obstáculo; Aurikatu, tomber, se renverser un cavalier; tropezar, caer.
*Auña (Auñamendi)*, pirineo, (B. N. chevreau, cabrito).
*Aurkintza (leku) (AN.)*, parage; trouvaille; ocasión.
*Ausa, ausaz (B. G.)*, par hasard; por ventura.
*Auteman (BN. R. S. L.)*, vérifier, éxaminer; averiguar.
*Auzi-alkia (c)* procés kadira, auzi alkitxo, obenduru alkitxo; banquette; banquillo del reo.
*Asago, asao, asagotu (B.)*, loin, éloigner, repousser; lejos, alejar, desechar.
*Azantza (AN. S. L.)*, bruit, effort; ruido, esfuerzo.
*Asarka (asar-asarka) (G.)*, jeu d'enfants qui consiste a s'attraper les uns les autres.
*Asazka, asazkaldi (B.)*, soulagement; desahogo.
*Azken beltzean (BN.)*, a la dernière extremité, a la rigueur; en último extremo.
*Azkandi (AN.)*, action d'arracher; arrancamiento.
*Askasi-zi (G. BN. L. S.)*, parenté, semence, enseignement; parentesco, simiente, enseñanza.
*Askitza, abitza (asaba-itza)*, tradición (neolg.).

*Azkorri (B. S.),* aurore, teinte rougeâtre des nuages; aurora, arrebol (egunantz. B.).
*Azku (BN. R.),* adresse, habilité; maña, habilidad, celo, interés, empeño.
*Azpegi (G.),* configuración, facciones; traits, lignes du visage.
*Aztura (BN. L. S.),* habitude; costumbre.
*Astan, astandu (BN. L.),* repousser, s'abstenir, s'éloigner; desechar, abstenerse, alejarse.
*Axuka, axukatu (Duvoisin),* défier, desafiar, provocar.
*Azle (B. G. AN. S.),* éducateur; educador; azibide (educación), (Azi, élever, croîte, semence).
*Asper (c),* ennui, chagrin; vengeance, rassasiement; venganza, disgusto; hartazgo.
*Baiki (S. AN. R.),* certainement; ciertamente, que sí.
*Baitegi (c),* prison; cárcel.
*Baiten (g),* différence; utsaren baitena, diferencia de nada.
*Baitin (bai-din) (G.),* certain; cierto, como si.
*Bakalduntza (neolg.),* monarchie; monarquía.
*Bakun (c),* simple, solitaire, depareillé; solitario, simple, desparejo.
*Bakura (AN. L.),* limit; límite.
*Baranoa (inguru) (S.),* autour, rededor; Baranoan.
*Baratari (G.),* maquignon, chalán; (BN. L.), notaire, secrétaire; notario, secretario.
*Bartale (BN.),* marécage; lodazal; Bartalatu, se vautrer; revolcarse.
*Batbera (batbedera) (R.), (norbera),* chacun, un seul; uno mismo.
*Batzindu (neolg.),* désunir.
*Bearki (S.),* obligation, services dont une personne a besoin; obligación, servicio necesario.
*Bekoz, beko (L),* face a face; frente a frente.
*Berariz, berarizko (B.),* spécialement, spécial.
*Berein (B.),* beaucoup; mucho.
*Bethegiña (S.),* parfait; perfecto.
*Berexiki, bixiki, berezi (AN. G. L. BN.),* particulièrment; separer; particularmente, separar.
*Bilakatu (BN. R.),* changer, saisir; cambiar, apresar.
*Bilaka, bilakari (BN. R.),* change, lutte; querelleur; cambio, lucha, pendenciero.



*Billalde (c),* alentours, pourtours; alrededores, contornos.
*Bipil (L.),* vaillant, résolu; valiente, resuelto; Bipildu, plumer les volailles, dépouillier; desplumar las aves, despojar.
*Bitxi (L),* gracieux, drôle; gracioso, chusco; (c) parure, bijou; joya, adorno.
*Bizka (biska) (AN. G.),* désir ardent, affection; anhelo, querencia.
*Bizkitarte (AN. BN. S.),* pendant, cependant; entre tanto, sin embargo (bitarte).
*Bonbonkeri (c),* prodigalité, gaspillage; alarde, gasto profuso.
*Bordaldu (RC.),* se marier; casarse.
*Bort (AN. BN. S. B. G.),* bâtard, enfant naturel; bastardo.
*Bozatu (BN.),* clore la bouche, devenir muet; callar, enmudecer.
*Bosatu (AN.),* action d'entrainement des terres par l'eau; desprendimiento o arrastramiento de las tierras por el agua.
*Bulka, bultza (c),* impulsion, dodelinement de la tête; empujón, cabezada.
*Bulko (R.),* inspiration, idée.
*Buruentar (berekoi) (S.),* egoïste, celui qui s'aime beaucoup; egoísta, amador de sí mismo.
*Burupe, burubide (agimen),* autorité; autoridad (C).
*Buruñurduna, (neolg.),* capucin; capuchino.
*Burutu, bururtu (c),* endurer, réussir, épier; aguantar, conseguir, espigar.
*Buruzki, buruzka (S.),* face a face, regardant; cara a cara, contra.
*Brintzal, brintzaleneko (B.),* fidèle, le plus fidèle; fiel, el más fiel.
*Dandanentarra (neolg.),* totalitaire, communiste.
*Deitagarria, deitatua (BN.),* digne de souvenir, fameux; digno de memoria, famoso.
*Deitore, deitoretu, deitoregarri (BN. L.),* plainte, se plaindre; queja, quejarse, lamentable.
*Doillor (B. G. L.),* bas, vilain; ruin, villano.
*Dedu (B.),* honneur, dignité; honor.
*Domua (B.),* capital en argent, coût; capital en dinero, costo.
*Dordo, durdu (B. G.),* difficulté, calamité.
*Ebatsi (AN. BN. L. S.),* voler, dérober; robar, hurtar.

*Ebatzi (B.),* resoudre, dirimer; resolver, dirimir, disponer, juzgar.
*Edaso (neolg.),* pampa (Eda, edatu) (BN. AN. S.), extensión, extender.
*Edesti (neolg.),* Histoire; Historia.
*Ediren (BN. L. S.),* trouver, hallar.
*Edu (B.),* autant . . . que, catégorie, régle; tanto . . . como, cacategoría, regla.
*Egari (BN. R. S.),* endurer, souffrir, confirmer, marcher; soportar, sufrir, andar.
*Egigo (BN. L.),* haine; aversión, odio, oposición.
*Egikera (AN. B. BN. G. R.),* manière, d'agir, conduite; modo de obrar, conducta.
*Egiune (B.),* contrat, contrato.
*Egitarau (neolg.),* programme; réglement.
*Egotzi (BN. B. T. N.),* imputer, jeter; imputar, lanzar, arrojar.
*Eguantza (B. G.),* aurore, aurora; (eguntiria, egunsentia).
*Eguntza (e),* date, fecha.
*Eiagora (BN. L. S.),* soupir, plainte; suspiro, queja, lamento.
*Eiki (L.),* sûrement, peut-être; seguramente, tal vez.
*Eina (BN. L. S.),* etat, proportion, mesure, estado, medida; (einera) a su estado habitual.
*Ekantza (G.),* attitude, position; postura.
*Ekuru (R. S.),* tranquille, ferme; firme, tranquilo; ekurugaitz, inquiet, impatient.
*Elarantza (L.),* maladie invétérée, évenement; enfermedad inveterada, acontecimiento.
*Elburu (BN.),* (jomuga) but a attéindre, objectif final.
*Elerti (neolg.),* littérature; literatura, art du langage; arte del lenguaje.
*Erti (neolg.),* art, arte.
*Eli (B. R. S.),* troupeau, foule, groupe; tropel, cuadrilla, rebaño.
*Elkaitz (L. S. BN.),* calamité, infortunio; (elgaitz) fièvre intermittente.
*Enasa (G.),* crotte, saleté du bord de la jupe; suciedad (del ruedo de la saya).
*Endekatua (enda-getua)* (B), dégéneré; degenerado, sin raza.
*Endurtu (BN.),* diminuer, dépérir; mermar, debilitarse, desfallecer.



*Engoitik (BN. L. S.),* déja, pour le moment; por ahora, ya, desde ahora.
*Enjogidura (S.),* penchant; querencia, inclinación; (enjogi) enclin, inclinado.
*Enura (?),* doute; duda.
*Epantsua (S.),* rancune, empêchement; rencor, estorbo; exception, dispense.
*Epea (B. G.),* terme, délai; plazo (BN.), idée, idea.
*Erabeti (AN. BN. R.),* timide, irrésolu; erabe, timidité.
*Eraen (G.),* loyer, soin; alquiler, cuidado, gobierno (eraendu) gouverner, gobernar.
*Eraio (G.),* écraser; estrellar.
*Erail (c),* assassiner.
*Eragon (B.),* s'excercer, murmurer, insister; ejercitarse en, murmurar, insistir.
*Erakori (B. G.),* lever, levantar.
*Erasan (AN.),* assaillir, faire parler, éreintement; acometer, hacer hablar, derrengadura; pleuvoir; llover.
*Erakusburu,* erakusbide, adibide.
*Eraspen (B. G.),* devotion, attachement; devoción, adhesión.
*Erauntsi, erauntzi, erautsi, erausi (divers),* bavarder, parler, aboyer, s'occuper, frapper, grosse pluie d'orage; charlar, murmurar, ladrar, ocuparse, golpear, lluvia torrencial.
*Erauzi (AN. S.),* faire sauter, détruir, ruiner, arracher, porter temoignage, prevariquer; hacer saltar, destruir, arruinar, arrancar, prevaricar, apostatar.
*Erauts (BN. L. S.),* poussière; polvo; (errautz) cendre; ceniza.
*Eredu (B.),* modele; modelo (de Edu).
*Erdi (bizia eman),* erditu; enfantér; parir.
*Erdokizaleak (neolg.),* centralista (erdi-oki-zaleak).
*Eringo (B.),* classe, espèce; clase, especie.
*Erizkidetu (c)* être de la même opinion; hacerse del mismo parecer (erizkidetasun) unanimité.
*Eratsiki (AN. BN.),* (erantsi), adherer, ajouter; adherir, añadir.
*Erkizaletasun (neolg.),* regionalismo.
*Eortzi (AN. L.),* enterrer; enterrar.
*Erra (BN. L. S.),* rancune, rencor; erragarri (erre-garri), haïsable, odioso, detestable.
*Erralda (BN. L. S.),* émigration (erri aldaketa).

*Erri-elkarte (neolg.)*, fédéralisme, fédération.
*Erri-erriketa (neolg.)*, erkalmena, (neolg.) democratie; erriketa, politique.
*Erkatu (L. S.)*, comparer; erkabide, punto de comparación.
*Erpae, erpai (S.)*, attente impatiente; espera impaciente.
*Ertun (B.)*, malhereux, désagréable; desdichado.
*Ertzo, ertzoro*, fou; imbécil; loco.
*Erritume (erriume, bort.)*, bâtard, enfant trouvé; bastardo.
*Erroiztu (AN. BN. S.)*, s'écrouler, s'ébouler les terres; derrumbarse, correrse la tierra.
*Esetsaldi (B. G.)*, attaque, persécution.
*Eskaida (AN.)*, occasion.
*Eskerga (B.)*, énorme, atrocce.
*Eskier, eskierki (? S.)*, sûr, certainement; seguro, ciertamente.
*Eskondu (B.)*, atteindre, alcanzar; ezkondu (c), se marier, casarse.
*Eskudantza (eskuantza) (AN. B.)*, habilité, dexterité des mains; habilidad de manos.
*Eslai (BN. S.)*, oblique, oblicuo (Koner, diagonal; oker, zear, ayer, makur).
*Esma (S.)*, esmaratu, s'apaiser, sosegarse; sosiego.
*Espa (BN. S.)*, jalousie, envidia, pesar.
*Estai (B.)*, rais de soleil, rayo de sol; haubans, obenque.
*Esteia, esteiagarri (S.)*, affligé, misérable.
*Esteka (AN.)*, lien, attache, collier; atadura, ligadura, collar; esteki, attacher, atar.
*Etemetea (BN.)*, grand effort; ahan; esfuerzo grande, jadeo.
*Etoi, eto (G. B.)*, perfide, traître, pérfido, traidor.
*Ezaba (S.), caché*, timide, oculto; ezabatu, effacer, disparaître, dissimuler; borrar.
*Ezperen, ezpere (AN. G. L.)*, au moins, autrement; siquiera, en caso contrario.
*Gaintxuri (AN.)*, laver, defendre; lavar, defender; gaintxura, *flatterie*, lisonja, adulación justifier; justificar (zuritu).
*Galutsa (B.)*, roué, débauché; pícaro, perdido.
*Gallaldi (G.)*, privilège; beneficio o don gratuito.
*Garabe (S. P.)*, aucun, quelqu'un, chacun; ninguno, alguien, cada uno.
*Garaitza, garaia, garaimen (c)*, victoire, victoria.



*Garbal (AN. BN.)*, ilustre, découvert, chauve; esclarecido, despejado, calvo.
*Gardi (B.)*, avis, opinión; parecer.
*Garrangaria (S. P.)*, poule glousseuse, gallina cacareadora.
*Geren (B.)*, deshonneur; gerengarri, deshonroso.
*Geurtz (AN.)*, l'an prochain; el año próximo.
*Ginga (G.)*, zenith, cenit; eguzki gingan, dans la plus forte chaleur.
*Giño (B.)*, proportion.
*Girbin (AN.)*, revers, reverso; (girbinka) a l'envers, al revés.
*Goaita (S. L.)*, garde, surveillant; presto, alerta.
*Gogai (c)*, idée; idea.
*Gogara (L. S.)*, au gout de..., agréablement; al gusto (gogora).
*Goiburu (B.)*, lema.
*Gotor (BN. L. S.)*, altier, ferme, bien membré; altivo firme, robusto.
*Iarauntsi (B.)*, herencia; heredar; hérédité, hériter.
*Ias (B.)*, habitude, inclination; iasa (euri jasa) (B.), averse, chaparron.
*Jabal (L. BN.)*, lache, poltron, calme, bonasse; bonanza.
*Jabaldu (B.)*, tempérer, s'affaiblr; calmar, disminuir.
*Jakilego (BN. S.)*, témoignage, testimonio; (jakile, témoin, renseigné; testigo, informado.
*Jalgi, ialki (BN. B.)*, sortir, échoir par effet de l'hasard, s'égrener les arbres; salir, caber en suerte, desgranarse los árboles, espigar el maíz, etc.
*Jara (B.)*, (¿vendrá de adi-ara?), attention; (jaramon) faire attention, hacer caso.
*Jara-egin jaregin*, détacher, délivrer; soltar, librar; (jareibide, salvation.
*Jhar (igar) (L. S.)*, sec, raide, étincelle; seco, yerto, chispa.
*Jarki (Jargi) (BN. B.)*, s'opposer, se resister; dar frente.
*Jasoin (G.)*, ciment; cimiento.
*Jaukal, yaukal (c)*, superieurement, excellemment. (Jaun-kal), como un señor.
*Jauki (S.)*, attaquer, assiéger, se livrer a une occupation; acometer, entregarse a una tarea.
*Jauretxe (neolg.)*, (jaunaren-etxe), eliza; eglise.

*Jauparitza (neolg.),* sacerdoce; sacerdocio.
*Jaurgoseina, (altseina) (neolg.),* ministre; ministro.
*Jaurgo (S.),* gouvernement; gobierno, seigneurie; empire; señorío, imperio.
*Jardetsi (AN.),* repondre; responder.
*Jazarri (AN.),* porsuivre, réprimender; persecución.
*Ibitu (B.),* se calmer un douler, baisser la marée, se désenfler une tumeur.
*Idoki (Idiki) (BN. S. L.),* ouvrir, ôter, repousser; abrir, extraer, rechazar.
*Igorpen (S.),* dépense; gasto.
*Igurdi (B.),* masser, sécouer; masajear, sacudir.
*Igurdizia (B.),* activité, habilité; actividad, maña.
*Iguriki (BN. L.),* attendre; esperar, aguardar.
*Iguzi (Igurtzi) (B.),* frotter, éssuyer; frotar, restregar.
*Igurtz (S.),* souffrir, supporter.
*Jin (BN. S. L.),* venir; (R. y S.) jaun, seigneur; señor.
*Jit (B),* penchant, passion violente; vice, courbure des arbres, inclinación, querencia, curvatura de los árboles, etc., vicio.
*Ikol (B.),* rabougri, chataigne vide, résumer; encogido, castaña vacía, resumir, reducir.
*Idaroki (AN.),* faire sortir; inspirer; hacer salir, inspirar.
*Ilburukoa (B.),* testament, testamento (s/Fuero sin más testigos que dos hombres y 1 mujer).
*Ilki (L),* tirer, extraire; sacar, extraer, salir, aparecer .
*Illurentu (S.),* éteindre; apagar, amortiguar.
*Illurrengo (AN.),* sur le point de mourir; moribond, a punto de morir.
*Illarraindu (G.),* s'enorgueillir; engreirse; (illarragindu) se rétablir (les animaux).
*Iñarrosi, ilarrosi (AN. BN.),* cribler, sécouer; zarandear, sacudir.
*Inause, iñausi (B. AN.),* tailler, cueillr les fruits sécouant les arbres; podar, recoger los frutos sacudiendo los árboles.
*Inazi (AN.), (egiñarazi),* promouvoir, promover, (S).
*Iñar (AN.),* rayo de sol; rayon de soleil.
*Iñazi (S.),* eclair; relámpago.
*Inkurra, inkurrio (G.),* rancoeur, souvenir amer; rencor, amargo recuerdo.



*Iñozokeri (BN. G.),* grimace, sottise; mueca, bobada; (iñozo), maniaque, maniático.
*Ipitz (B. G.),* balai fait d'herbes; estropajo.
*Iradipen (neolg.),* (era-adi-pen), raisonnement; razonamiento.
*Iradu (B.),* a la hâte, prisa; Iradugo, plus vite; más aprisa.
*Iraizeko (B.),* éphémère; efímero.
*Iratio, iratiotu (L.),* compulser; compulsar.
*Irasi (neolg.), (ira-asi),* créer, instituer, fonder; fundar, crear.
*Irato (Ito erazi), (B.),* noyer; ahogar.
*Iraungi (AN. L.),* s'éteindre, apaiser, priver de forces, apagar, apaciguar, agotar.
*Inka (B. AN. G.),* plainte, soupir, effort; queja, suspiro, esfuerzo, momento crítco.
*Irautsi (BN.),* descendre, abbatre, bajar, derribar; (B), insister, se dédier; dedicarse.
*Irotua, iroa (L. S. B.),* vielli, arbre desseché, pourriture; envejecido, árbol seco, pobre (de irol, caduco).
*Iraitzi, iraitsi (Leiz. AN. BN.),* jet, jeter, expulser; tiro, lanzar, expulsar.
*Irulez (B.),* a l'envers, al revés; iruli, renverser; volver.
*Irriñarte (AN. B. G.),* crévasse, fente; rendija, hendidura.
*Irrizuri (BN. L.),* rire moqueur, faux; risa falsa, burlona.
*Itaun (B.),* (galdera), demande; pregunta.
*Itu (B.),* cible, but, objet d'une action; blanco, fin, meta.
*Ituin (B.),* utilité, utilidad, condiciones, situación de vida.
*Itunbide (B.),* itunben, contrat; contrato, convenio.
*Itxesa (S.),* bouleversement, ravage; trastorno, estrago.
*Itzetorriantzea (neolg.),* itz-etorri-antze, art oratoire; arte de la oratoria.
*Itzorkuna (itz-sorkuna) (neolg.),* etimologie; etimología.
*Itzuri (AN. G. S.),* échapper, fuir, éviter; escapar, huir, evitar.
*Izantza (L.),* condition, classe; característica.
*Izigarri, izugarri (AN. BN. G. L. S. B.),* épouvantable; espantoso.
*Izki (neolg.),* lettre; letra.
*Izkimizki (B. AN.),* racontars; habladurías.
*Izkiritu (L.),* cri, exclamation, rire aigu; grito, exclamación, risa aguda.
*Istatu (AN. B.),* resplendir, briller; resplandecer, brillar.

*Izterbegi (isterbegi) (S. AN. BN.),* ennemi, plûtot personne antipathique; enemigo, envidioso, antipático.
*Kabu (B. BN.),* détermination, trempe, iniciative; temple, iniciativa, etc.
*Kamustu (AN. G.) (amustu, amostu),* émousser, apaiser la soif; embotar.
*Kancre (L.), ganora, (B. y G.),* apparence, fondement, dextérité; apariencia, fuste, destreza.
*Kapetatua (L.),* éffronté; descarado (alto, elevado).
*Kardaba (G.),* agitation, préocupation.
*Karia (L.),* motif; motivo; kariaz, a cause de...; a causa de.
*Katazka (AN. BN. G.),* grand effort; esfuerzo grande.
*Keko-Meko (B.),* indécis, irrésolu; indeciso, irresoluto.
*Kemen (B. G.),* vigueur; vigor.
*Kirmen (B.),* fidéle, loyal; fiel, leal.
*Kokildu, okildu, kokitu (G.),* s'acagnarder, déchoir; acoquinarse, decaer.
*Kolposgarri (      ),* zulakaitzez idazgarria, digne d'être sculpté, digno de ser esculpido.
*Koner (BN.),* (eslai, oker, zear), diagonal, bigle; bizco.
*Kopuru (B. G.),* somme, quantité; nombre total; suma, número total; kopurutsu, nombreaux; numeroso.
*Korromio (AN.),* haine, transport de colère; odio, transporte de cólera.
*Lakementiar (neolg.),* liberal.
*Laru (B.),* jaune pâle; amarillo pálido.
*Latari (neolg.),* (lagi-ari), avocat; abogado.
*Laterri (neolg.),* état; estado.
*Lauzkintza, lauzkantza (de lauzka, lauzkatu) (B. N. L.),* atteler quatre animaux a un véhicule, aider, secourir; cuartear, ayudar.
*Leiñuru (S.),* éclair, éclat, ligne de parenté; brillo, rango (leñu) lignée; linaje, raza.
*Lekaide (ne[illegible]g.),* moine; monje; (lekaidetxea), couvent; convento; le[illegible]de-gaialdia, noviciado.
*Lekari (AN.),* douleur, peine; dolor, penalidad.
*Lekat (L.),* sauf, hormis; excepto, fuera de ...
*Lerma (AN. L.),* déchet, perte; merma
*Legarra (S.),* impot, octroi; Legarrak, Etats Géneraux de la



Soule, Estados Generales de Zuberoa.
*Legarra (B. BN. G.),* (legarri) gravier, caillou, pierrette; grava, guija, piedrecilla.
*Legartegi (S.),* octroi; fielato.
*Lerren (B.),* gran effort; lerrenak egin, épuiser toutes les resources; agotar todos los recursos.
*Lertzo (B. S.),* bave des limaces, saleté, pellicule d'impureté; bava, suciedad, capa de impureza.
*Limburtu (L.),* glisser; deslizarse; (AN.), gaspiller; malgastar.
*Limurtu (G.),* capter les simpathies; engatusar, persuadir.
*Loasma (BN.),* torpeur, somnolence; modorra, soñolencia.
*Lorrindu (B.),* se vautrer, abimer, gaspiller; revolcarse, desintegrarse, estropear.
*Lurrindu, lurrinkatu (G.),* s'évaporer, evaporarse; aromatiser, aromatizar; lurrin, vapeur, vaho.
*Luebaki (AN. G.),* lueban (B.), tranchée; trinchera.
*Lurditza (lurbira, B.),* la terre, le planet; la tierra, el mundo.
*Ludiaberritar, ludiaberritar-keri (neolg.),* internationaliste, internatiolanisme.
*Maitasarrea,* maitasuna.
*Malatsa (B.),* robuste, affable.
*Malda, maldatu (AN. G.),* abri, réfuge, proteger; côte; cuesta.
*Mantzunga (G.),* aubaine, chance folle; ganga, suerte loca.
*Mamortu (L. AN.),* dévenir légere la terre; ablandarse la tierra, rester bouche bée, estupefacerse.
*Mardailla (S.),* médisance, calomnie; murmuración, calumnia.
*Martzal (B.),* noble.
*Marro (AN. B.),* tricherie, fraude; trampa, fraude.
*Menegin (c),* obéir; obedecer.
*Mengoa (BN. S.),* nécessaire, obligatoire; de necesidad, obligatorio.
*Mikuiñ (BN.),* cupide, codicioso.
*Mizto (eztena),* dard; aguijón; langue méchante; mala lengua.
*Mokorra (B. L.),* hargneux; adusto (mukur, tronc, tronco).
*Mordindu (B.),* s'amollir la terre par l'effet des pluis continues; ablandarse la tierra.
*Multzo (c),* groupe; grupo, montón (moltso, moltzo).
*Mozorro (AN. G. B.),* masque, épouvantail, fantôme; máscara, espantajo, fantasma.

*Mugerra (B. BN.),* (suarri, sukarri), silex, pierre très dure; pedernal.
*Murri (G. B.),* pauvre, dépouille, chauve; pobre, espojado, calvo.
*Murtzi (L.),* obstacle, obstáculo; poing; puño.
*Mutiri (AN. L.),* impertinent, violent.
*Muzin (G. AN. B.),* grimace de dégoût; mueca de disgusto; muzindu, bouder, amohinarse
*Naga (G.),* nausée; nagatu, détester, répugner; detestar.
*Naikara (B. N. L.),* conforme, a souhait; a satisfacción.
*Narea (leñu) (B.),* lignage, linaje (BN.), tranquille (bare).
*Natu (B. G.),* tache, rousseur; tacha, mancha, peca.
*Nekabiur, nekabiurkai (B. G.),* routtes ou harts des branches; ataduras hechas con ramas.
*Noraezeko (B.),* inévitable.
*Noralde (B.),* avantage; ventaja.
*Odi (B. G.),* conduit, canal; conducto, canal.
*Ogasun, ondasun (BN. B. G.),* avoir o biens, proprieté; haberes, bienes, propiedades.
*Oil (BN. S. L.),* sauvage, solitaire, farouche; salvaje, solitario; (oildua), chassé, expulsado.
*Okiduna (aberatsa) (B.),* riche; rico.
*Olde, oldez (L.),* volonté, fantaisie, goût; voluntad, fantasía, gusto.
*Onesgo (L.),* aceptation, consantement.
*Ongo (OLH.),* paix, paz.
*Onguntza, ongunde (AN.),* traité, contrat; convenio, contrato.
*Onlege (neolg.),* moral.
*Ondikozko (AN. BN. S.),* infortune, néfaste; (ondikatu), affliger; afligir.
*Ontarte, ontartetu (AN. G.),* faveur, favoriser; favor, ayudar.
*Oputza (R.),* effort physique.
*Orbera (G.),* grossière chemise d'homme; camisa gruesa de hombre.
*Ordoki (BN. L. S.),* plaine; terrain plat; llanura, meseta.
*Oro,* danak.
*Orobateko (AN.),* semblable; semejante.
*Onu (B.),* conseil; consejo.
*Orots (BN. L. S.),* animal mâle; macho.
*Orrin, orlegi (neolg.),* verde.



*Osorotarra (neolg.),* integrista.
*Ondare, ondore (c),* héritage; herencia.
*Otea (AN. S. L.),* la doute, l'interrogant; la duda, el interrogante.
*Ozke, ozka (BN. AN. S. c),* entaille, état, degré; muesca, estado, grado.
*Patar (AN. BN. L. S.),* côte scabreuse, cuesta escabrosa; (B.) personne negligée; (G) Liqueur forte.
*Peitu, peit izan (BN.),* manquer, être depourvu; faltar, estar desprovisto.
*Poxi (L.),* tranche, tajada; (poxikarazi) faire couper en petits morceaux, cortar en pedacitos.
*Salo, xalo, zalu, zalui, zaloi (BN. AN. G. B.),* affable, souple, ferme, robuste; glouton; afable, flexible, firme, robusto, glotón.
*Sapaillo (AN.),* balcón; toit d'une espece d'hangar; techo de cobertizo (B).
*Sapa (BN.),* vogue, renom, voga, fama; (B) greñas, chevelure emmelé.
*Sen (B. R.),* jugerment, bon sens; juicio, buen sentido.
*Sendar (B.),* solide (non liquide); sólido por oposición a líquido.
*So-egin (BN.),* regarder; mirar.
*Sokitu (S.),* salir, corrompre; ensuciar, corromper.
*Sorayo (AN. BN. B. G.),* indolent, moralement insensible; (lepre-lepra-legenduna).
*Sorgortu (B. AN. G.),* se pâmer, s'extasier; pasmarse, enagenarse.
*Sorta (BN. B.),* fagot, bouquet, manojo, ramillete; fardeau, grave, lourd, carga grave.
*Tai (BN. S.),* délai, terme; plazo.
*Tanpez (S.),* subitement, tout d'un coup; de golpe.
*Targoa (BN.),* division, schisme; división, cisma.
*Tenkor (B.),* ferme, firme; Tenkortu, prendre racine, arraigarse.
*Tinel (AN. R.),* empressé, ponctuel; presto, exacto.
*Tirlu (B.),* cantidad grande, grande quantité.
*Thipil (S.),* clairière, endroit dégarni d'arbres; claro en el bosque.

*Thipildu (S.),* éplucher, plumer, expliquer; desplumar, explicar, aclarar.
*Toxa (B. G. AN.),* blague a tabac; coffre a grains; tabaquera, arca; toxa belar, tabac.
*Tustoa (R. S.),* pourri, podrido; touffe de genet, cepe de chêne; mata de argoma.
*Trenka, trenkatu (L. S. BN.),* trancher, interruption, solution de continuité.
*Txau (AN. BN.),* pur, propre; puro, limpio.
*Txemeko (R.),* effort pour soulever une charge; esfuerzo para levantar una carga.
*Udigoa (BN.),* aversión.
*Uarre (AN. BN. R.),* eau trouble, torrent; agua turbia, torrente, crecida.
*Uartze (L.),* horizon, horizonte.
*Ugalkorra, ugaldu (B.),* fécond, augmenter, multiplier; fecundo, multiplicar (ugarikorra).
*Ugarte (B. G.),* ile, endroit entouré d'eau; isla lugar entre aguas.
*Ugarteki (neolg.),* penninsule.
*Ukaldi (BN. S. AN.),* coup, golpe; (R), fois, vez; beste ukaldian, une autre fois; otra vez.
*Ukan,* izan.
*Uia (BN. S. L.),* excitation (à un chien), incitación a un perro; (B) pez, resina negra, etc.
*Uiña (L.),* vague; ola.
*Uguin, iguin (S. BN. B. c.),* répugner, éprouver de la répugnancee; repugnar.
*Unatu (B. BN. S.),* se lasser, se fatiguer; cansarse; venir ou apporter ici; venir o traer aquí.
*Unaindia (BN. L.),* limite plus proche, la parti de deça; límite, la parte de aquí de un río.
*Uren (B.), uren,* principal, noble; uren buru, urentze, fins derniers; novísimos.
*Urentu, urent (S. BN.)* terminer, achever; concluir, terminar, sobreseer.
*Urgoiti, urgoi (BN. L. S.),* timide, reservé, hautain, altivo, tímido, reservado.
*Urtuna (BN.),* pusillanime, apocado, simple.



*Urrurik (urririk) (BN. S.),* gratis.
*Usubillo (B.),* rumeur: rumor.
*Usu (G. L. AN. BN.),* trés vite, pronto, de prisa.
*Ustia, ustiatu (BN. S.),* essuyer les assiettes, la sauce, profiter l'occasion, rebañar los platos, aprovechar, sacar el partido,
*Utsala (AN. L. S.),* chose pauvre, éphémère; cosa efímera, pobre; utsaldu, perdre sa vigueur.
*Uxia (B.),* désir, pretention; deseo.
*Uzkaili (BN. L. S.),* renverser; rétourner.
*Uzkurtza (neolg.),* religión.
*Xain (R.),* pur, simple, simplement; puro, claro, simplemente.
*Xaki, saki (AN. BN.),* entaille, mortaise, déchurure; muesca, marca, rasguño, herida.
*Xede (BN. L. S.),* but, fin, limit; fin, objetivo, límite.
*Zabuka (B. G.),* titubant par l'effet du vin; se balancer, ondoyer; dando tumbos por efecto del vino; balancearse, ondear, flamear.
*Zano (AN.), txano (B. G.),* bonnet de nuit; gorro puntiagudo.
*Zantzu (G.),* índice, signe, resemblance; barrunto, señal, semejanza, traza.
*Zapa (AN.),* opression, compression.
*Zapakina (R.),* marc du raisin; orujo (lo que se ha prensado).
*Zarbeldu (G.),* émoustelé par la boisson; alegre por la bebida.
*Zerbeldu (AN.),* tiédir, s'affadir; entibiarse, desvirtuarse, marchitarse.
*Zarramalka, zarramazka (B. BN. R.),* egratignure; rasguño; agitación, subversión.
*Zauzkada (G.),* biotzaren zauzkada, emotion; palpitation du coeur; latidos del corazón.
*Zeia (B.),* marché; mercado.
*Zeli (G.),* penchant, envie; inclinación, ansia.
*Zenbakizki (neolg.),* mathématiques.
*Zerga (legarra, azta, ariel) (c),* tribut, impôt, droit; tributo, impuesto, arbitrio.
*Zibuka (B.),* se balancer, balancearse; (zibu) balançoire, columpio (ver zabuka).
*Zildai (AN. B. G.),* collier, entrave, collar, atadura, trava; zildaigaitz, difícil de sujetar.
*Zima (G.),* caractère, chevelure, crinière.

*Zirritu, zirrito, zirrista (AN. BN. G.)*, fente, rendija (L) fidèle; fiel.
*Ziz (AN.)*, monnaie; moneda.
*Zubil (B.)*, tronc, tronco; zubildu, s'etourdir, aturdirse.
*Zudu (AN.)*, intérêt, importance, interés (⅔ de lieue, de legua).
*Zuin (AN. S.)*, plan qui se fait sur un champ avant la semence, tranche de terre enlevé du sillon; terreno marcado para sembrar, tierra sacada del surco.
*Zuntsitu (BN. L.)*, ruiner, détruire, disparaître, se dissiper; arruinar, desaparecer.
*Zupin (neolg.)*, cannon, cañón.
*Zurkaitz, zurkats (BN. L. B.)*, tuteur, soutien de plantes faibles; rodrigón, sostén de plantas débiles; timide, mesquin, indomptable, mezquino, indómito.
*Zurrian (G. L.)*, comme si, pour cause; a modo, a fuer de.
*Zuzutza (neolg.)*, justice; justicia.

Sebastián de Amorrortu e Hijos, S. A. C. y F.
Luca 2223, Irar-Lantegian' Irarria, eta Ekin S. R. L.,
Argitaldariak, Argitara Emana
1958'ngo Aberri Eguna
B. Aires'en, Jorrailla'ren 6'an, Jauna'ren Pizkunde Igandea



Colección

## ABERRI TA AZKATASUNA

1. *Gramática Vasca Abreviada,* por I. López Mendizabal.
2. *Ami Vasco,* por Fray Evangelista de Ibero.
3. *El Asesino de los Fueros,* por Un Navarro de la Ribera.
4. *Euzko Ami,* Ibero'tar Ebangelista.
5. *El Caso del Clero Vasco,* por P. Iñaki de Azpiazu.


EUZKADI
ARABA
BIZKAYA
GIPUZCOA
LABURDI
NABARRA
ZUBEROA